



**Frankoren garaiaz
Iker Friasekin**

03

Gerra Zibila eta ondorena eskualdean nola joan ziren azaldu digu Friasek. Gainera, larunbatean Artesiagak bidea egin zuten diktadurako presoak omenduko dituzte.



**Egurra saldu ezinik
sos guttiago udalek**

04

Eguraren krisiak hala behartuta, eskualdeko udal aunitzek ez dute dirurik jasoko aitzineko urteetan diru-iturri nagusietako bat izan den egurraren salmentatik.

2009ko maiatzaren 14a • XXIX. urtea
www.ttipi.net



44 60 urterekin desafiorako prest

MIEL MINDEGIAK AZAROAREN 8AN APUSTUA JOKATUKO DU
LARRETXEAREN KONTRA

Alfonbra eta edredoietan
DESKONTUAK

deskontuak
%30

deskontuak
%50

ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA:
Bittiria 26
SALTOKIA:
Plaza Zaharra 27
LESAKA
Tel. 948 63 77 80



BEGIRALEEN LAN-POLTSA

LANPOSTUA: Begirale arduraduna

Bete beharrekoak:

- Batxilergoa edo Goi Mailako Lanbide Heziketa.
- Aisialdi eskola batek egiaztatutako begirale titulua.

LANPOSTUA: Begiralea

Bete beharrekoak:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

ZERRENDAREN ERABILERA:

- Bereziki, udaleku irekietarako begiraleak kontratatuzeko erabiliko da.

ESKAERAK:

- Eskaera maiatzaren 29ko 12:00ak baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.
- Baloratuko diren merezimenduei eta gainerako xehetasun guztiei buruzko informazioa eskuratzeko deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara.

Arantzan, 2009ko maiatzaren 6an

Mankomunitateko lehendakaria, Ainara Maia Almandotz.

Bortziritako Euskara Mankomunitatea

Telefonoa: 948634125 e-posta: euskara@bortziriak.org

Helbidea: Herriko Plaza 7, 31790 ARANTZA

DATUAK...

- Gerra Zibila eta ondorena, ez ziren behar bada Euskal Herriko zenbait tokitan bezain gogorrak izan eskualdean, baina Iparraldearekin mugan egoteak toki estrategiko bihurtu zuen.
- 60 urte beranduago orduko ondorioak ikus ditzakegu gaur egun. Preso errepublikarrek, bertzeak bertze, Artesiaga eta Aritxulegiko bideak egin zituzten Gerraostean. Hain zuzen, Artesiagako bidea egin zutenei omenaldia eskainiko diete larunbatean.
- Gaiari buruz mintzatu zaigu Iker Frias historialaria (Elizondo).



Iker FRIAS *Historia irakaslea*

UTZITAKO ARGAZKIA

«Langileen batailoiak 1938an agertu ziren hemen eta lan aunitz egin zuten»

ttipi-ttapa

Nola joan zen Gerra Zibila eta gerraostea inguru hauetan?

Gerra Zibilari dagokionez, gerra hasierako lehen hilabeteak izan ziren gogorrenak. Izan ere, Gipuzkoako mugan frontea eratu zen, eta frontea Gipuzkoa barnerantz joan arte, eskualdeak gerraren ondorio larrienak zuzenean pairatu zituen: soldaduen presentzia itogarria, soldaduei jana eman beharra, animalien lapurretak... Gero, ordea, lasaiago egon zen eskualdea, baina gerrak iraun zituen hiru urteetan hainbat gazte Francoren alde borrokatze- ra bidali zituzten, eta batzuk ez ziren inoiz bueltatu. Gerraostean, Gerra Zibilaren hasieran bizitako antzeko egoera bizi izan zen gure herrietan. Berriz ere, soldadu anitz kokatu zituzten eskualdean, eta muga zaindu eta gotortzeari ekin zioten. Izan ere, Franco beldur zen aliatuak espainiar estatuan sartu eta bere diktadura botako zutela. Horretarako, errepublikar presoak osatutako langile batailoiak ekarri zituzten, eta muga aldean gotortze lanak, kuartelak eta errepideak egin zituzten.

Zeinen alde agertu ziren herritarrak?

«Orotara bortz batailoi ibili ziren eskualdean, eta ezin da jakin zenbat preso egon ziren. Baztango Udalean dagoen zerrenda batek 1.056 preso errepublikarren izen-abizenak biltzen ditu»

Gehiengoak Francoren alde egin zuten hemen. Eliza eta karlistak Francoren alde atera zirenez, herritarrek ere bide beretik jo zuten. Halere, izan ziren salbuespenak, eta ezkertiar eta abertzale dezentek ihes egin zuten, eta errepublikarren eremuan sartzea lortu zuten, frankisten aurka borrokatzeko.

Gerra Zibilak zenbat hildako utzi zituen?

Ez dago jakiterik. Baina errepresioari dagokionez, Nafarroako bertze toki batzuekin konparatuta, oso jende gutxi erail zuten *pikete* faxistek eskualdean. Baztanen, adibidez, 10 hildako utzi zituen errepresioak gerrako urte haietan. Bertetik, pertsona gehiago hil ziren frontean, borrokan.

Eta zenbat iheslari?

Kopuru zehatza ez da jakiten ahal. Bai-

na testigantzek diotenez, jende askok ihes egin zuen Iparraldera. Batzuek arrazoi politikoengatik alde egin zuten, eta bertzeek frontera ez joateagatik.

Gaur egun ikus ditzakegun orduko ondorioak zein dira?

Frankisten kartzelak errepublikar atxilotuekin beteta zeudenez, atxilotuekin lan-batailoiak sortu zituzten. Langileen batailoiak 1938an agertu ziren eskualdean, eta hainbat lan egin zituzten: hala nola, errepideak (Artesiaga eta Aritxulegikoa), bunkerrak, lur azpiko gotorlekuak eta kuartelak. Presoak Asturias, Kantabria, Bizkaia eta Gipuzkoakoak ziren gehienbat. Orotara, bortz batailoi ibili ziren gure eskualdean, eta ezin da jakin zenbat preso egon ziren denetara. Baztango Udalean dagoen zerrenda batek 1.056 preso errepublikarren izen-abizenak biltzen ditu.

Hemengo jendeak nola erantzun zuten?

Jendeak orokorrean ongi hartu zituen presoak, eta ahal zuen moduan lagundu zituen. Batez ere, janaria eman edota arropa garbitzen. Kontuan hartu behar da, herritarrentzat ere urte zailak zirela eta janari gutxi zutela.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Egurraren sektorea krisian dabil azken hamarkadan, eta ez du hobetzeko itxura haundirik.

EGURRAREN SEKTOREA KRISIAN

Egurraren prezioa lur azpian, diru iturri nagusi bat galdu dute udalek

Arazoa ez da oraingoa, baina azken aldian egurraren merkatuak okerrera egin du eta burua altxa ezinik dabil. Eraikuntza eta pargintzaren krisiak ere izan dute zerikusia sektorearen jautsieran, baina urte hasieran Landetan izandako haizeteek hondoa jota utzi dute. Haizeteek hainbat pinudi bota zituen ilbeltzean Landetan, 300.000 hektarea guztira, Nafarroako iparraldeak hartzen duen eremuak adina, eta oihanen jabeek zazpi urtetarako aurreikusia zuten egurra egun bakarrean galdu zuten. Horrek ondorioak ekarri ditu eskualdera. Bistakoa da, oihanak betidanik izan direla diru-iturri garrantzitsu eskualdeko udalentsat, baina Landetako krisi horren eraginez, hango prezioak ikaragarri jautsi dira eta Landetako prezioei ez zaie aurre egin. Landetan enborrak lurrean eta eskualdean zuhaitzak zutik, saldu ezinik. Egur sobera merkatuan eta urteetan diru sartze politikak izan dituzten udalek baliteke sosik ere ez jasotzea datozen urteotan egurraren salmentatik.

ttipi-ttapa

Merkatuan horrenbetez egur egoiteak prezioen jautsiera ekarri du, eta momentu honetan, Landetako merkatuarekin lehiatzea ezinezkoa da. Prezioak jaustiaz gain, lurrean botata dauden egurrak lehenbailehen saltzeagatik frantziar estatua dirulaguntzak ematen ari da eta horrekin eskualdeko egurraren merkatua hankaz goiti gelditu da.

«*Egurren salmentatik udal aunitzek ez dute deus ere aterako aurtan*». Argi eta garbi mintzatu zaizkigu Xabier Iturria, Alejo Martikorena, Fermin Iñárrrea eta Jose Miguel Altzuart basozainak. Adierazgarria bada errandakoa, urteetan diru aunitz utzi duen intsinis pinuak ez baitu tokirik izanen aurtengo udalen diru-sarreretan, eta seguru aski hurrengo urteetakoetan ere ez.

Mieljoxe LEKUONA *Goizuetako alkatea*


«Lehengo urtean markatutako egur guztiak zutik daude, eroslerik gabe»

Krisiak eragin izugarria izan du Goizuetan. Egurra Udalaren diru iturri nagusia da eta momentuz lehengo urtean markatutako egur guztiak zutik daude, ez dago eroslerik. Horren eragina dirutan haundia da, 600.000 euro inguru. Gure aurrekontuaren %60-70 esan nahi du horrek. Datozen 7-8 urteotan urtero 16.000 metro kubiko pinu ateratzea zegoen aurreikusia. Iazko prezioetan oinarrituz, 600 eurotik milioi bat eurora arteko irabaziez ari gara. Egoerarekin kezkatuta, inguruko udalekin harremanetan jarri ginen, eta 9 udalek Nafarroako Gobernuari bilera eskatu genion, eta ea zein irtenbide ematen dion. Aurten krisiak ez du gaizki harrapatu Goizueta, baina hurrengo urtean kontuak segitzen badu, orduan bai nabarituko dugula. Bestalde, *Fusarium* gaiztak jotako 50 hektareako pinudi gaztea ere badugu eta hortik ez dugu etenirik aterako. Biomasuren aukera ere hor dago.

Koldo ERKIZIA *Lesakako alkatea*

«Iaz 150.000 euroko sarrerak izan ziren, eta aurten ez dugu deus ere aurreikusi»

Lesakan aurtengo aurrekontuetan nabaritu da eragina. Iaz 150.000 euroko sarrerak izan ziren eta aurten ez dugu deus ere aurreikusi. Urte hasieran esleitutako mendi batzuekin ere gorabeherak baditugu, luzapena eskatu digutelako. Halere, esleituak daudenez, lehenxeago edo beranduxeago zerbait egingen dugu. Mendi batzuk subastara ateratzea pentsatua genuen aurten, baina merkatua dagoen egoeran ez ditugu aterako, ez delako inor etorriko erostera. Hurrengo bizpahiru urteetan ere ez dugula sarrerarik izanen uste dut. Soluzioak Nafarroako Gobernutik etorri beharko luketelakoan nago, dirulaguntzen bidez. Merkatua ezin da aldatu. Landetako egurrak ustiatzen dituztenentzako dirulaguntza haundiak atera ditu Frantziako Gobernuak eta horrekin ezin da lehiatu. Gainera, prezioak aunitz jautsi dira. Hemen ere zerbait egin beharko da.

Jose M. Zelaieta *Bidasoa-Berroaran*

«Irabazi baino gehiago, gastatu egiten dugu orain, mantenimendu lanekin»

Bospasei urte daramatzagu irabazirik izan gabe. Aurtengo Eguberrietan 20 urte beteko dira sutea izan zela, eta oraindik birpopulatzen ari gara. Pinudi bat badugu, baina horrekin ez dugu sosik aterako. Gainera, gorabehera batzuk ere izan genituen kontratista batzuekin, egurra ez zigutelako ordaindu eta galtzen ateraginen. Gauza ongi zihorean, urtero pinudi bat paratzen zen salgai, haritz amerikarra ere saltzen zen... Ateratako diruarekin mantenimendu gastuak ordaindu eta Lau Herrien artean banatzen genuen. Baina orain, pinudiak ez du deus ere balio. Bizpahiru urtez esperoan egon beharko dugu, eta agian ordurako, pinudiak hondatu egingen zaizkigu, haunditu egingen direlako eta haunditzean, pinua arindu egiten da eta ez du inork nahi. Irabazi baino gehiago, gastatu egiten dugu orain, mantenimendu lanekin. Hurrengo urteak okerragoak izanen dira, eta esperoan egon beharko dugu.

Garairik oparoenean, 1998 aldera, metro kubikoa 60 eurotan saltzera ailegatu ziren udalak. Baina geroztik gainbeheran joan da. 1999ko abenduan bertze haize bolada indartsu batek 140.000 milioi metro kubiko egur bota zituen Landetan, eta orduan prezioak 30 eurora jautsi ziren. Aurtengo kalteak, halere, ordukoak baino haundiagoak izan dira, eta Iñarrearen hitzetan, «Frantziar egurrak ia oparitzen ari dira».

Frantziako estatuak Europara ez ezik, merkatua gehiago zabaltzeko asmoa ere baduela azaldu digu Iturriak: «Baionatik atera den lehen itsasontzia Alemaniara joan da. Tona 3 eurotan saldu dute, eta gainera, estatuak ustiatzen duenari laguntza ematen dio. Ekialdera joatea pentsatzen ere ari dira eta merkatu hori ere betetzen badute, eraikuntza bere onera bueltatzen den arte, akabo hemengoa».

Aurtengo egurrak saldu ezinik, eta joan den urtean markatutakoak ere bere horretan. «Esleitutako loteak 2-3 urteko luzapena eskatzen ari dira, eta bertan Landetatik ekartzen ari dira», adierazi du Martikorenak. «Hurrengo bizpahiru urteak gogorak izanen dira».

Inguru honetako udal gehienek nabarituko dute ondorioa, eta batez ere, Bortzirriak, Goizueta, Leitza, eta Lau Herriek (Sunbilla, Doneztebe, Elgorriaga eta Ituren).

ETA GAINERA PINUAREN MINBIZIA

Krisiarekin aski ez balitz, pinuaren minbizia ere hor dago. *Fusarium Ciconium* izeneko gaitza da eta intsinis pinua bereziki sentikorra da. Horren harira, Espainiako Gobernuak Errege Dekretu bat onartu zuen, gaixotasun hori duten pinuak zerrendatu eta bota egin beharko direla erranez. Araudi hori mar-

txan jarriko balitz, eskualdeko pinu aunitz eta aunitz bota egin beharko dira. Hori da, adibidez, Goizuetaren kasua. Bidasoaldea ez dute oraingoz gaixotasun eremu izendatu, baina halere, Nafarroako Gobernuak eten egin ditu intsinis pinua aldatzeagatik orain arte ematen zituen subentzioak. «Horregatik ez da batere errentagarria pinu mota hori landatzea, eta partikularrek ez dute landatzen». Martikorenaren ustez, martxa honetan intsinis pinua «desagertu egingen da». Iñarreak, berriz, «espezie erresistenteagoei begira hasi beharko dela» iritzi dio.

Eta beharbada bai, bertzelako zuhaitz espeziei begira eta egurrekin bertzelako merkatuak landu daitezkeela pentsatzen hasi beharko da. Iturriak aukera bat utzi du mahai gainean: biomasarena. Egurrearekin energia sortzea, alegia.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtatzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leizeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizeta	30 €



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euskarabidearen laguntza jaso du



• IRAKURLEAK MINTZO •

Yamiled Giraldoen erailketaren aurrean

Apirilaren 25ean jatzotako Yamiled Giraldoen erailketa larriaren harira, Mendaur DBHI-ko ikasle, guraso, langile eta irakasleok zera adierazi nahi dugu:

1. Atxikimendu eta elkartasun osoa Yamiled Giraldoen senitartekoei.

2. Erabat gaitzesten dugu gure eskualdea guztiz hunkitu duen erailketa hau.

3. Sumintasan honen aurrean eskatzen dugun bakarra, Yamiled eta bere familiari zor zaion errespetua da.

Lan egin dezagun guztiok gizalegezko etorkizun bat sortzeko. Horrelako gehiegikeriak gerta ez daitezten.

**Mendaur DBHI
Ikastetxea
Doneztebe**

Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko 2009ko jaia

Bizi euskal eskola. Egunero horretan dihardugulako, egunero aurre egiten diegulako arazoei, egunero Euskal Hezkuntza Sistema Propioaren bidean **Euskal Eskola Publiko Berri** baten alde aritzen garelako.

Sortzen-ikasbatuaz eskola publiko euskal-

dunaren eredia bultzatzen duen elkarte da. Eskola euskalduna hizkuntzan eta kulturaren Euskal Curriculum a oinarri izanik, eskola partehartzailea eskola komunitate osoaren partehartzea sustatuz, neska mutilen arteko genero bereizketa elikatzen ez duena parekidetasuna bultzatuz eta pedagogia berritzailearen eskola eredia eraikitzen dihardugu. **Ikastetxeak bere osotasunean** hartzen ditugu, hau da, bertan eskola komunitateko kide guztiek dute lekua: irakasleek, gurasoek, eskola-langileek eta ikasleek. Denon partehartzea beharrezkoa baita sinesten dugun hezkuntza ereduaren alde.

Gure helburu nagusia Euskal Eskola Publiko Berria lortzea da. Horretarako, beharrezkoa ikusten dugu Hezkuntza Sistema Propio bat eratzea, zeinetan gure hizkuntza eta kulturaren transmisioa bermatuko den, gure herriko balore eta beste elementu guztiak batera.

Euskaraz aritzen diren ikastetxe publikoen bilgune bihurtu nahi dugu festa hau eta aldi berean gure egitasmoa, gure eredia den eskola publiko euskalduna jendarteratu eta **Euskal Hezkuntza Sistema Propioa** aldarrikatu. **Atera dezagun kalera eta herrira gure eskola proiektua;** eskola herria hezteko tresna delako.

Hezkuntzako maila guztietan euskara oinarri izango duen hezkuntza baten alde zaudeten guztioi, gure jaialdira etortzeaz gain, kontzientziatu eta antolatu-

tzera deitzen zaituztegu. Indartu dezagun guztion artean eskola publiko euskaldunaren eredia.

Animatu zaitetze Euskal Herriko txoko guztietatik maiatzaren 24an Iruñeko Takonera parkera eta **BIZI EUSKAL ESKOLA!!!**

**Sortzen
Ikasbatuaz**

Oh Happy Day

Musikazalea naiz eta dezente jarraitu dut programa hau. Aurrera segitu baino lehen, zorionak Errenterriakoei irabazteagatik! Eta Donostia, Bermeo, Trapagan, Oñati, Basauri, Hernanikoei eta ahaztu ditudanei, animoa, jarrai dezaten lanean orain arte bezain ongi.

Iruztan batzuk egin nahi ditut programari buruz, oro har. Epaimahaikoen gainean esan nahi dut, bukaera aldean ikusi ditudala orekatuagoak eta modu egoikiagoan, baina lehenengo programetan airtortu behar dut behin baino gehiagotan harritu nindutela, epaiak eta iriztiak esaterakoan ematen baitzuen mehatxuka ari zirela. Baina, esan dudana bezala, bukaera aldean jarrera txukunago batean ikusi ditut.

Eta euskarari buruz zer esanen dugu? Ba, ETB1ek eman duenez gero, dena euskaraz izan da; ezin zen guxtiago espero. Normala izan da. Baina kantak, ordea? Bai, entzun izan dira abestiak euskaraz, baina gutxi eta gainera, gehienak lehiatik kan-


po. Azken asteetan usate dut bakar bat ere ez dela entzun lehiaketa barruan. Eta grabatu behar duten diskoan, oker ez banago, kanta bakarra izanen da euskaraz egonen dena.

Egia esan, horixe da gehien harritu nauena Oh Happy Day programan. Alde batetik, musikan adituei askotan entzun diegu Euskal Herria oso aberatsa dela musikagintzan. Arrunt erreperitorio on eta handia duela, eta abar, baina, antza denez, programa honetarako ez du balio izan. Hala erakutsi digute behintzat partehartzaileek.

Beste alde batetik, badakit pertsona batek baino gehiagok esanen didala, izan behar dugula irekiak, beste erreperitorio batzuk ere kantatu behar ditugula eta, beraz, mundu zabaleko abestiak baliatu behar ditugula, baina horrek ere nahiko sor eta lor utzi nau, zeren eta mundu zabalean 6.000 hizkuntza baino gehiago omen daude oraindik, eta, aldiz, Oh Happy Day programan ingelesa eta gaztelania kenduta, oso hizkuntza gutxi entzun dira, lehen esan bezala, banaka batzuk euskaraz eta beste baten bat Afrikako hizkuntzaren batean. Baina, horretan ere uste dut gertatu zela xelebrekeriaren bat, hau da, kanta Afrikako izan, eta hala ere, leloa ez gainerako guztia ingelesez abestu zutelakoan nago, behin gutxienez.

Antza denez, globalizazio, uniformatze, mundializazio eta unibertsaltasun garai honetan Oh Happy Day programan ere nabari-

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



BERRIA, 2009-05-02

«Aukerarik onena hau da guretzat (...) Lesio aunitz izan direlako etorri gara –Portlandera–; horrek uste genuena baino lehenago itzultzeko aukera eman digu, eta kontent gara. Ongi aprobetxatzen ari gara (...) Fisikoki urte gogorra izan da. Eta psikologikoki ere bai, aunitz nekatu gara. Horrek, aldi berean, bidea eman digu hainbat partidatan ez genuen indarra erakusteko, amorrugatik. Horri esker irabazi ditugu zenbait partida (...) Badira denboraldi okerragoak pasatu izan dituzten jokalariaik, eta haiek

badakite nola eutsi umoreari eta aldagelako giroari (...) Oraingoz Portlanden jarraituko dugu hurrengo denboraldian, eta kontent gaude. Etxetik gertu gaude; gainera, Portlanden hasi ginenean hemen gelditzeko esperantzarekin etorri ginen. Eta hemen gaude (...) Iruñean dut burua (...) etxeko jokalaria gehiagorekin bertzelako giroa sortuko litzateke Portlanden alde».

Niko MINDEGIA
Portlandeko jokalaria
doneztebarra
(Argazkian, Adrian Crowley taldekidearekin)
BERRIA, 2009-05-02

tu da argi eta garbi ingelesaren gailentzea eta inposatzea. Hori ona edo txarra den, ez dakit seguru. Suposatzen dut, denak bezala, bere alde positiboa eta negatiboa izanen dituela, baina nik gauza bat bai esan dezake dala ziurtasun osoz, alegia, programa honetan euskaraz gose eta egarri gelditu naizela. Aurrera begira, antolatzaileei eta parte-hartzaile eskatuko nieke gogoeta txiki bat honen inguruan, azken batean denok dakigu euskara hizkuntza gutxitu bat dela bere etxean, eta horrexegatik hain zuzen ere, plusen bat eman behar-

ko zaio, bere egoera pixka bat orekatzea nahi baldin badugu behinik behin. Ideia bat: kanpoko abesbiak euskaratzeko posibilitatea ere hortxe dago beti. Antzeko zerbait hizkuntza boteretsu guztiek egiten dute. Lan gehiago dela? Badakit. Hor, behar bada, ETBk jar lezake itzulpen zerbitzuren bat. Edo ideia hobeak sortzen badira, hainbat hobeki.

Dena den, eta bukatzeko, animatu nahi ditut inplikaturako guztiak jarraitzea eta hobetzen saiatzea.

Xanti Begiristain
Iruñea

• 11 GALDERA LABUR •

Areson bizi den errazkindarra edo Errazkinen sortutako Aresoko alaba?

Areson bizi den errazkindarra.

Zer eman dizu Aresok?

Urte asko daramazkit hemen eta negozioarekin jende asko ezagutu dut. Gustura nago.

Taberna, jatetxea, denda... Hori dena egiteko nola moldatzen zara?

Jende asko dagoenean, asteburuetan batez ere, etxekoek laguntzen didate, baina astean zehar nerone moldatzen naiz, bakarrik. Nolabait egiten dut.

Egunean lan gehien duzun momentua zein da?

Goizetan lan gehiago izaten dut.

Atsedena noiz hartzen duzu?

Arratsaldetan bizpahiru orduz itxi egiten dut taberna. Egun osorik ez dut itxen eta gero urte osoan aste batez itxita gelditzen da.

Urte aunitz daramatzazu lanbide honetan?

16 urterekin hasi nintzen lanbide honetan eta orain 46 urte ditut... Atera kontuak! Hemen baino lehen Lekunberrin beste taberna batean aritu nintzen. Beti honetan aritu naiz.

Zein da adin guztieta-

ko jendea erakartzeko sekretua?
Hitz egin eta goxotasuna eman behar diezu bezeroei. Ongi egin behar diezu denei.

Eta zein da bezerorik jatorrena? Haurrak, gazteak, helduak ala zaharrak?

Denak, berdin.

Ardiak ere badituzue, tabernatik ateratzeko bidea izan liteke?

Pixka bat aritzen naiz ardiekin, asko ez baina... Deskonektatzeko bidea da bai, buelta bat eman eta azkenean deskonektatu egiten naiz.

Zein bertzte zaletasun dituzu?

Paseatzea. Arratsaldetan, denbora baldin badut behintzat, paseotxo bat ematea gustatzen zait.

Nori zerbitzatuko zenioke gusturara?

Ba ez dakit... Lagune!



Mikaela MARTINIKORENA
Aresoko tabernaria eta dendaria

Igantzioko merkatuari buruz

Joan den maiatzaren 1ean merkatua antolatu genuen Igantzioko Abesbatzako kideok, 20. urteurrenoko ekitaldiak finantzatzeko dirua biltzeko asmoarekin. Egun hori pasatuta eta balorazioa eginda, eskerrak ematen hasteko garaia da.

Eskerrak ematen hasi eta izen aunitz erran behar harko genituzke. Baina ez genuke inor aipatu gabe utzi nahi; horretaz, izenik aipatu gabe, eskerrak modu batera edo bertzera

merkatu hori aitzinera ateratzen laguntza eman dигuzuen guziei:

- Bereziki eskerrak igantziarrei. Eskerrak merkatu puskak emateagatik. Aunitzek etxean bertan egindako puskak eman dizkiguzue; bada-kigu horiek egiteko zent-bat denbora behar izaten den, eta, horretaz, bereziki eskertu nahi dizuegu zuen borondatea.

- Eskerrak gurekin batera merkatua antolatzen, prestatzen, saltzen eta lanean aritu zaretenei.

- Eta eskerrak merkatu joan eta hango gauzak erosi dituzuen igantziar nahiz kanpotar gu-

ziei.

Badakizue abendura bitartean abesbatzaren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatzen segituko dugula. Ekainaren 13an Lesakako Abesbatzaren kontzertua izanen dugu herrian, eta urriaren 31n Giltzarri Abesbatzarena. Abenduaren 19an, berriz, aurten herrian kontzertuak eskaini dizkiguten kanpoko lau abesbatzak gurekin elkartuko dira, eta emanaldi berezia eskainiko dizuegu. Gonbidatuak zaudete. Mila esker berriz ere.

Igantzioko Abesbatza

LANA

10, 14 eta 19 hilabete eta erdiko erregulazioa nahi du Condesak Zalaingo langileentzat

310 langileei eraginen lioken espediente Lan Departamentuak erabaki zain dago

ttipi-ttapa

Ez da Condesa taldeak aurkeztu duen enplegua erregulatzeko espediente bakarra, baina bai gure eskualdean eragin handia izan dezakeena. Zalain Transformados lantegian 310 langileri eraginen lieken EREa aurkeztu du Condesako zuzendaritzak Nafarroako Gobernuko Lan Sailean eta horrek kezka eragin du langile eta sindikatuen artean. Kontsulta epea maiztaren 5ean akitu zen, eta geroztik Lan Sailak 15 eguneko epea du maiztaren 25a bitartean txostena onartu ala ez erabakitzeko.

Erregulazioa maiztaren 25ean paratu nahi du indarrean zuzendaritzak eta 2010eko abenduaren 31 arte iraunen luke. Baina ez litzateke berdina izanen langile guztientzat. 25 langileri 19 hilabete eta erdian eten nahi die kontratua; 80ri 14 hilabeterako eta gainerako 205 laguni 10 hilabeterako. Kontratuen etenaldia zatika eginen litzateke hurrengo urteko abendura arte.

Langileen Batzordean (LABeko 4; ELAko 4, UGTko 3, CCOOko 1 eta Cuadroko bat) kezka

«Hainbat inbertsio aurreikusi zituen enpresak, baina oraindik ez dira egin»

LAB sindikatua

eragin du zuzendaritzaren asmoak.

Kezka eragiteaz gain, Langileen Batzordeak ez du begi onez ikusi Condesaren asmoa. UGTk, erraterako, *«ez du espediente hori onartuko, enpresak bideragarria den planik aurkezten ez badu»*. Hala azaldu digu Patxi Altzu sindikatuko ordezkariak. Bere hitzetan, *«zuzendaritzak ez du deus ere paratu mahai gainean, ez du deus argitu etorkizunari buruz, eta hori gabe ezin dugu deus onartu»*.

ELA sindikatuko Jose Luis Vidalek ere zuzendaritzak bideragarritasun plan bat aurkeztu beharduela dio. Eta LABeko Julen Mitxelorenak zera azaldu dio **Ttipi-Ttapa**ri: *«2005ean sinatu zen planaren oinarritik etorriko den plan bat nahi dugu»*. Duela lau urteko planak 2010erako urteko 115.000 tonako produktioa eta 340 langileko plantila aurreikusi zituen.

«Bertze espediente larriago baten irteera izan daiteke orain aurkeztu duen EREa»

ELA sindikatua

«Hainbat inbertsio aurreikusi ziren, baina oraindik ez dira egin», gaineratu du Mitxelorenak.

Zalaingo tutu lantegiaren etorkizuna beltz ikusten du ELAk, *«hagitz beltz»*. Gainera, Condesak iragarri duen espediente horren gibelean, bertze zerbait egon daitekeela uste du: *«bertze espediente larriago baten irteera izan daiteke orain aurkeztu duen*

«Ez dugu espediente onartuko, enpresak bideragarria den planik aurkezten ez badu»

UGT sindikatua

EREa. Txosten gogorago bat egon liteke guztia gibelean».

'AKATSAK' DITUEN ESPEDIENTEA

Kontratu etenaldia langileen arabera diferentia izatea ere ez du begi onez ikusi Langileen Batzordeak: *«gehiegizkoa eta desberdina da»*. ELAren ustetan, *«aukera edozein dela ere, astakeria hutsa da»*. Bide

beretik, LABen iritziz, kontratua denboraldi diferentetarako aplikatzea *«akatsa da»*.

Langileak taldeka banatzeari buruz, enpresak *«lan karga eta lanpostu bakoitzaren behararen arabera»* egin duela adierazi du.

Bertzalde, langabezia egonda, langileek parotik bakarrik kobratuko lukete, enpresak ez baitu osagarririk ordaintzeko asmorik. Langileen Batzordeak, ordea, langileek %100 kobratzea nahi du. Baina zuzendaritzak erran duenez, *«enpresa ez dago inongo kopururik ordaintzeko baldintza ekonomikoetan»*.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Erregulazioaren aurka Beratik Iruñera Burniaren martxa
Nafarroako Gobernuak Berako Funvera lantegiko 147 langileri 195 egunetarako eraginen liokeen erregulazioa onartu egin du eta horren aurka egiteko, maiztaren 6tik 8ra Burniaren martxa egin zuten Funverako 100 bat langilek. Beratik Iruñera oinez joan ziren. Ekimen honekin, Funverako langileek Nafarroako Gobernuak onartutako ERE «bortitz» horren kontra daudela erakutsi nahi izan zuten, eta Gobernuak erabakia berriz aztertzea eta langileen eskariak kontuan hartzea eskatu zuten.

José I. Gonzalez Enguita
Dinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

LANA

Arcelor-Mittalek %40era jautsiko du Lesaka eta Legasako produkzioa

Langileek txandaka joan beharko dute lanera

ttiipi-ttapa

Arcelor-Mittal enpresak ere Enplegua Erregulatzeko Espedienteak paratu nahi du indarrean bere lantegi guztietan. Tartean daude Legasa eta Lesakako fabrikak ere, baina lerro hauek idazterakoan, ez zegoen zehaztua ez erregulazioa nolakoa izanen den, ez noiz sartuko den indarrean ere. Langileek dakiten bakarra lan-kargaren %40-45arekin geldituko direla da. Zuzendaritzak apirilaren 28an Madril egindako bileran eman ziren horren berri. Gerotik lantegiz lantegi negoziazioetan ari dira zuzendaritza eta langileak.

Espedienteak onartzen den momentutik urtebeteko iraupena izanen luke. Baina hori momentuan zehaztuko litzateke. Langileak txandaka ibiliko dira, lana dagoenean batzuk lanean eta bertzeak etxean; lanik ez dagoenean denak etxean; eta berriaz lana dagoenean lehenagotik etxean egondakoak lanera eta bertzeak etxera.

Sindikatuak, baina, zuhurtziaz hartu dute enpresaren erabakia.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arcelorrek Legasan duen lantegia.

LAB, erraterako, erregulazioaren kontra azaldu da. «Txosten honek ez du zentzurik, bertzeak bertze, enpresak ia-zko urritik langile ebentualak eta azpikontratutako langileak kaleratu dituelako eta espainiar estatuan proposatu zituen 600 borondatezko baja ere lortu dituelako», azaldu digu LABeko Alberto Cristobalek. Gaineratu digunez, «urte hasieran Arcelor Mittalen jabea den Mittal familiak etekinak banatuko ditu, 400 milioi euro». 2008an soldaten igoera %0koa izan dela ere nabarmendu du Cristobalek.

UGTko Patxi Altxuk, berriz, «EREa nola aplikatzen den ikusi beharko dela», aipatu digu.

ELAko Jose Luis Bidaiek bere aldetik, enpresak iragarritako Bidasoa Plana betetzeko eskatu dio zuzendaritzari. «Ekainean aplikatu beharra zen, baina krisia dela-eta, gibelatu eginen da». 35 milioi euroko inbertsioa izanen duen plan industrial horrekin, bertzeak bertze, Legasako lantegia itxi eta horiko produkzioa Berrio-beitira eta Lesakara lekualdatzea da asmoa. Gisa beran, Legasakoa itxita, orain fabrika da-

goen lur eremua Nafarroako Gobernuak erosiko du.

Osagarri dagokienean, enpresak %65a ordaintzeko prest dagoela adierazi du.

Enpresak diruaren faltarik ez duela gogoratu du LABek: «enpresak hasieratik argi utzi digu erregulazio hau ez dela diru faltagatik, merkatuaren egoeratik baizik». Hori horrela, espediente hori aplikatzeko beharrik ez du ikusten LABek. Txostena «zabalik eta lotu gabe» egoteak kezka eta zailtza eragiten dituela ere azpimarratu du Cristobalek.

%3,24 jautsi da langabezia eskualdean

ttiipi-ttapa

Azken urte erdiko joera apaldu eta langabeziak zertxobait beheiti egin du apirilean, Doneztebeko Enplegu Bulegotik emandako datuen arabera. Oraindik milatik goiti langabe daude, baina martxo hondarrean 1.049 langabe izatetik apiril hondarrean 1.015 izatera pasatu zen eskualdean, 34 guttiago eta %3,24ko jautsiera. Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, 344 kontratu egin ziren apirilean, eta horietatik 47 bertzerik ez ziren mugabeak izan. Lan arloei dagokienez, zerbizuen arloak dauka, diferentziarekin, langabe gehien, baina jautsiera haundiena ere arlo horrek izan zuen apirilean. Apiril hondarrean 534 langabe zeuden (martxoan baino 40 guttiago). Industrian, aldiz, zertxobait goiti egin zuen apirilean eta 301 zenbatu ziren (martxoan baino 6 gehiago). Eraikuntzan martxoan baino 10 guttiago zeuden, 109; nekazaritzan lagun batean goiti egin zuen langabe kopuruak, 9ra. Aitzinetik lanik topatu ez zuten artean ere 9 lagunetan goiti egin zuen kopuruak eta 63 ziren apiril hondarrean.

ttiipi ttapa
 ☎ (0034) 948 635458

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
 Tel. 948 631 317 • Faxa. 631 537
 Iurjoa s/rtip. BERA
 www.antzuzela.com
 info@antzuzela.com

Aintzinaideak, argoluak, oina aintzinaideak, lehoak, atseak, arkuak, plareak, taminiak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marmazkiak

BERA

Abian da Mugaz Gain gazteentzako antzerki jaialdia

Maiatzaren 20an eta 21ean izanen dira hurrengo saioak

ttipi-ttapa

Mugaz Gain Antzerki Jaialdia hasi da. Maiatzaren 7 eta 8an abiatu zen, eta hilaren 20an eta 22an izanen du segida.

MAIATZAK 20

10:00etan: *Afrikara goaz* (Labiaga Ikastola, 5. maila).

12:00etan: *Ikas dezagun ba...* (Igantziko Eskola, 3. eta 4. maila).

15:00etan: *Aditutakoak* (Ricardo Baroja, 5. maila)

18:30ean: *Aditutakoak* eta *Afrikara goaz*.

MAIATZAK 22

10:00etan: *Otso bihozbera* (Jesusen Bihotza, 2. maila)

12:00etan: *Zapatak mintzo* (Hazparne)

15:00etan: *Xaulen bidaia* (Ricardo Baroja, 2. maila)

18:30: *Xauleneta Otso bihozbera*.

Arratsaldeko saioak edozeinek ikusteko izanen dira. Gainera, maiatzaren 23an Kultur Etxean bi dantza antzerki emanaldi izanen dira, 19.00etan. Donibane Lohizuneko Pastiche taldeak *A, a, a, animaliak*

eskainiko du eta Azkaingo ikastolako gurasoek *Putxerriko Satorrak*.

Mendi Itzuli arrakastatsua

Markak hautsi eta inoizko parte-hartzaile kopururik altuena izan du aurtengo Mendi Itzuliak. Eguraldia lagun, 596 mendizalek egin zuten ibilaldia maiatzaren 3an eta Agerra Mendi Taldeak balorazio ona egin du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Juul hauteskundeak Labiaga Ikastolan

Apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunean, Euskal Herri osoko ikas-tolek Juul hauteskundeak egin zituzten liburu eta ilustratzaile gustukoena zein diren erabakitzeko. Labiaga Ikastolaren kasuan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. mailakoek botoa kutzara boto behar izan zuten eta marrazkilarien artean, Emile Jadoul, Maria Ramos eta Gyril Harim aukeratu zituzten. Liburuaren artean, berriz, Agustin Fernandez *Itsasoak ihes* izan zen boto gehien jaso zituena; idazle beraren *Aupa* liburua izan zen bigarren hautatua eta Olga Perezen *Lukas kanpinera doa* hirugarrena. 3. mailatik goitikoek Internet bidez bozkatu zuten eta Euskal Herri mailan 3, 4, 5, eta 6. mailakoek Toti Martinez de Lezearen *Nur eta irlandar gnomoa* liburua aukeratu zuten eta DBHkoek John Boyneren *Pijama marradunaz jantzitako mitikoa*. Boto gehien jaso zituen ilustratzailea Mikel Valverde izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bestetako kartel irabazlea

12 parte-hartzailearen artean Vicente Taberna beratarrak egindako kartela aukeratu du epaimahaiak Sanesteban bestak iragartzeko. 450 euro jasoko ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaztea Irratiaren bideoklip onena

Gure Txokoako dantza taldeko mutiak dira eta Gure Txokoako jubenil mailako futbol taldeko entrenatzaile eta jokalaririk bezala ere ezagunak. Baina *Nahiadance Boys* bideoklipak egin ditu famatu. Izan ere, Gaztea Irratiak Nahiadance taldearen *Hot, hot* kantua hornitzeko antolatutako bideoklip lehiaketa irabazi dute gazte hauek: Julen Jimenez, Julen Baleztina, Mikel Morcillo, Mikel Agara, Mikel Goienetxe, Javier Pikabea, Patxi Castillo, Iñigo Erkizia, Ibon Erdozain, Asier Anduela, Imanol Moreno eta Ibai Iturriak.

ALBERTO RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

JAIKONE-GOZTEGIA
MAYO 19 BERA 94830798

carinho
gustatzen duke
1.048.000.000
www.carinho.net

LESAKA

Krisiari aurre egiteko 4,3 milioi euroko aurrekontu «estua» onartu du Udalak

EA eta Oninek alde bozkatu zuten eta PNVk kontra

Aitor AROTZENA

4.367.238 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten Udalak, apirilaren 24ko udal batzarrean Onin eta EA-ren aldeko botoekin eta PNVren kontrakoarekin onartutako udal aurrekontuaren arabera. Koldo Erkizia alkatearen erranetan, «krisi garaiari dagozkion aurrekontuak estuak dira eta gastuen hainbat diru sailetan murrizketak egin behar izan dira, diru-sarrera guttiago izanen baitira». Joan den urteko aurrekontua, errate baterako, 5,1 milioi eurokoa zen eta 2007koa 8.616.800 eurokoa, aurtengoaren bikoitza. Inbertsioen atala izan da gehien bat murriztu dena, 2007an 6.316.200 euroko inbertsioak egin ziren bitartean, aurten atal hori 1.951.600 eurora murriztu baita.

Koldo Erkizia aipatu digunez, «aurten inbertsioak minimoak izanen dira kontuan hartuz kopuru horretatik 750.000 euro igerileku estalia ordaintzeko eta bertze 800.000 euro Zambra erosteko erabi-

liko lirarekeela. Gainerakoa lan tikiak bertze ez dira izanen». Zambra erosteari buruz, 2007tik aurrekontuetan sartzen den atala dela aipatu digu alkateak, «baina Alkaiagan Cerdnak duen nabea saltzearekin lotua dago. Nafarroako Gobernua-ren oniritzia duen egitasmo zabal bat bada Zambrarako, baina aitzinera egin baino lehen herriko kultur talde eta erakunde ezberdinei aurkeztu eta denen oniritzia nahiko genuke».

Hain zuzen, salerosketa hau da PNVren kontrako boza azaltzen duen arrazoietakoa bat, Juan Fermin Mitxelena zinegotziaren erranetan: «Ez zaigu Alkaiagako nabea saltzeko une egokia denik iruditzen, egoera ekonomikoa dela eta ez baitu bere egiazko balioa hartuko. Eta saltzea lortuko balaiz, Herriko Etxearen zorra murrizteko erabili behar harko litzateke, eta ez inbertsioak egiteko. Kultur Etxea eta liburutegia proiektua oraindik indarrean dago eta hori de-



ARGAZKIA: ORONOZ

Irain eskolako 6. mailako ikasleek astebete emanen dute Murtzian Eskola Ibiltarietan

Irain eskolako 6. mailako ikasleak Murtziara abiatu dira trenez maiatzaren 12an, Patxi Saenz irakasleak lagundurik, Eskola Ibiltariak programan parte hartzeko. Iraingo ikasleak Segoviako Carbonero el Mayor-eko San Juan Bautista eta Tarragonako Mora la Nova-ko 3 D'Abril eskolako ikasleekin elkartuko dira. Murtzia ezagutzea eta bertze lurraldeetako ikasleekin elkarbizitza praktikatzea eta sendotzea dira programa honen helburuak. Horretarako, Iraingo ikasleek kalatan-gaztelania-euskara hiztegitxo bat osatu, katalanez abesti batzuk ikasi eta DVD bat grabatu dute Lesakako eskola, herria eta ohiturak aurkeztuz.

fendatzen segitzen dugu».

MURRIZKETAK

Hainbat ataletan murrizketak egin behar izan direla adierazi du Koldo Erkizia alkateak: Uda-berriko Feriari ez da eginen aurten, Sanferminetarako aurrekontua 90.000 eurotik 63.000 eurora jaitsi da; musika eta kultur taldeei 50.000na euroko laguntza eman zitzaizkien eta aurten 18.781 eta 31.602 eurokoa jasoko dute, hurrenez hurren; kirol taldeei ere 37.000tik 19.000ra jaitsi zaie.

PNV ez du gaizki ikusten atal batzuetan honelako murrizketak egitea, baina bertze ba-

tzuk «euforia ekonomikoko garaioak» direla iruditzen zaio. «Arinkeria iruditzen zaigu promozio turistikorako 77.300 euro bideratzea eta, aldiz, oihan aprobetxamenduetako atala 150.000 euro izatetik Ora pasatzea». Mendi lanetarako eta egin diren plantazioak zaintzeko atala ere sobera murriztu dela uste du PNVk. «Gardelkon, natur parkea egiteko landatu ziren bertako hainbat landare eta erabat utzia dago ingurua, sutea gertatzeko arrisku handiarekin».

Hainbat zatitan banatuak dauden diru-atalak bakarren biltzea ere egokiagoa iruditzen zaio PNVri, «kontuak garbiagoak izateko».

FLASH

Guraso Eskola

Irain Guraso Elkarteak antolatuta maiatzeko asteazken guzitan egiten ari da, 10:00etatik 12:00etara Antoiu 27ko aretoan. Marta Aristu psikologoa da aurten ere irakasle.

Keinu Leihoak

Mairu Antzerki Tailerrak aurten ere Keinu-Leihoak 09 antzerki jardunaldiak antolatu ditu Udalaren laguntzaz. Maiatzaren 23an, Errege, soldadoa eta bufoia antzezlan eskainiko dute udaletxe arkupeetan 20:00etan eta 30ean, Txanobarragorri komentuan.

XATURETXEA

T. 948 637 260 - LESAKA

t tipi
t tapa
☎ (0034) 948 635458

IRU BIDE

948 637 260

BOZZ-AIDZ

948 637 260

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA
948 637 260

ETXALAR

4 juntakide berri eta 23 bazkide gehiago Larraburua Elkarte

Gaur egun guztira 155 kide ditu elkarteak

Joseba eta Nerea

Joan den maiatzaren 3an egin zuten batzarrean junta berria adostu zuten Larraburua Jubilatuta Elkarte. Orain arte egon diren bi juntakidek, Birjina Arburuak eta Manuel Agirre *Obenek*, utzi egin zuten junta eta lau kide berri sartu ziren: Fernando Olaetxea, Joxepa Etxenike, Juana Mari Arburua eta Joxe Mari Arburua.

Jose Jabier Zubietak segituko du presidente eta idazkari eta diruzain Fernando Olaetxea eta Joxepa Etxenike izanen dira, hurrenez hurren. Hori gutti balitz, 23 bazkide berri sartu dira elkarte.

Guztira 155 kide ditu momentuotan Larraburua.

Kontzertua Herriko

Larunbat honetan,

maiatzak 16, kontzertu bikoitza izanen da Herriko Ostatuan. Berriko (Bizkaia) bi taldek joko dute, Mafiak eta Xarmak. Euskal rock doinuak aditu ahal izanen dira gaueko 11etatik aitzinera.

Igerilekutako sorosle bila

Dagoeneko ireki da udan herriko igerilekuan sorosle lanetan aritzeko izen-emateko epea. Beti bezala, bi lagun behar ditu Udalak udarako, bai igerilekua eramateko, bai ostatua eramateko. Lan honetan aritzeko eskatzen den baldintza uretako sorosle titulua izatea da.

Lanpostuaren gaineko informazio gehiago nahi dutenek udaltxean eskatu behar dute. Izen-emateko epea datorren ekainaren 5a bitarte luzatuko da.



ARGAZKIA: EDURNE ELIZAGOIEN

Bertso-saio arrakastatsua Herriko

Maiatzaren 1ean sekulako jendetza bildu zuen Herriko Ostatuan Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko bertso-desafioak. Xabier Silveira eta Joxe Juan Zubieta *Etxabe Aritz Casabal* eta *Aritz Etxeberria* *Ministren* kontra aritu ziren. Joseba Olagarai gai-jartzaileak ariketa bereziak paratu zizkien bertsolari. Bertzeak bertze, Etxalarko hitzei bertsoan aritu behar izan zuten, objektu bereziei bertsoan eta trikitixaren erritmora bertsoan. Gehienetan bezala, Silveira izan zen protagonista eta guztientzat izan zuen zerbait. Olagarai ere ez zen libratu bere zirrikaldietatik. Etxalar nahiz inguruko hainbat lagun elkartu ziren eta Julen Zubieta antolatzailea «*hagitz gustura*» gelditu zen saioak izandako arrakastarekin. Nafarrak izan ziren txapeladunak baina gipuzkoarrek, aitzinerago, «*errebantxa*» egitea ez dute baztertzten.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Lurrizti Ederra auzoko bestak

Azken urteotako ohiturari segituz, aurten ere 60 bat lagun elkartu ziren Agereberreko Bordan, maiatzaren lehenbiziko igandean, bazkari ederraren bueltan auzoko bestak ospatzeko. Inoiz baino jende gehiago bildu zen.

IGANTZI

Frontoiaren zati bat ixteko dirulaguntza eskatu dio Udalak Gobernuari

Eguraldi txarrarekin busti egiten delako egin du eskaera

ttipi-ttapa

Kirol Institutuaren dirulaguntza deialdiari erantzunez, Udalak frontoiaren alde bat ixteko subentzioa eskatu du Nafarroako Gobernuari. Izan ere, haize handia eta euria egiten duenean, pilotalekua busti egiten da eta ezinezkoa izaten da hor egotea. Subentzioa jasoz gero, obra egin eta arazoa konponduko litzatekeela uste du Udalak.

Igerilekuko ostatua Leire Tabernak

Hilabete barru, ekainaren 13an, zabalduko ditu ateak igerilekuak eta aurten, ostatuaren ardura Leire Taberna Iribarren herritarrek hartuko du. Udalak igerilekuko ostatua hartzeko

deialdia apirilean egin zuen eta baldintza guztiak bete zituen eskaintza bakarra Tabernarena izan zen. Honek 1.100 eurotan hartu du ostatua. Hala, bera izanen da irailaren 12ra bitarte iraunen duen denboraldian ostatuaren martxa eramanen duena.

Gas naturala herrian

Gas Navarra enpresak herrian gas naturala sartzeko esku artean duen proiektuak aitzinera segitzen du. Obra horiek ukituko litzuketuen lurten jabeak ere jakinaren gainean daude eta joan den astean akitu zitzaizkien alegazioak aurkezteko epea. Berri hori apirilaren 15eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.



Udaberriko Besta arrakastatsuak

Gisa guztietako ekitaldiekin gozatzeko aukera izan zuten igantziarrek eta kanpotik hurbildutakoek Euskara Batzordeak antolatuta maiatzeko zubian egin ziren Udaberriko Bestetan. Maiatzaren 1ean Igantziko Abesbatzaren alde dirua biltzeko egin zen merkatuak, erraterako, parte-hartze handia izan zuen. Eta maiatzaren 3an iaz argitaratu zen herriko mapan ageri diren hainbat toki ikusteko aukera ez zuten alferriki galdu behetako argazkian ageri direnek. Gainerakoan, argazkiak, afariak, bertso saioa, zinema... izan ziren.

ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA



Udalaren laguntzak

Garapenerako Lanki-

detzako programari 100 euro ematea onartu du Udalak eta horrez gain,

Elikagaien Banku Federaziora bertze 100 euro bideratuko ditu.

Lizardi
Telekomunikazioak

TDT Instalazioak
TB Instalazioak (satelite, lurrekoak)
Instalazio indibidualak eta kolektiboak
Portero automatikoak
Ebaketa hari musikala

Tel. 670 415 720
joseanlizardi@hotmail.com

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autozomak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berritzaile sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittoria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Villa, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ARANTZA

Bosgarren pilota kanpaldia egingen da ekainaren hondarrean

Dindaia fundazioak eta Belate elkarteak antolatuta ekainaren 29tik uztailaren 3ra izanen da

Nerea ALTZURI

Hilabete honetan herriko eskolan egingen dituzten ateraldien berri joan den alean eman genituen. Eskolako ikasketa egitarauaren barneko kanpaldiez gain, udarekin batera bertzelako aukerak ere izaten dira. Herrian bertan nola urrunxeago hautatzeko modua izaten da udako oporretan.

Herrira ere, haur zein helduak etortzen dira aterpera nola landetxeetara. Aterpean udalekuak eta barne-tegiak izaten dira udan. Aurtengoan, Dindaia fundazioak eta Belate pilota elkarteak antolatuta pilota kanpaldia egingen da borts egunez. Ekainaren 29tik uztailaren 3ra antolatua da eta 8 eta 12 urteko gaztetxoei zuzendua da.

Goizean zehar euskal pilota ardatz hartuko da egitarauan; arratsaldean mendi eta ige-

rilekura irteerak egingen dira eguraldiak laguntzen badu, eta bertze-la, tailerrak izanen dira; eta arratsetan, berri-z, jolasak, film emanaldiak eta bestarako tarteak izanen dira. Be-

ti ere pilotari profesionalen bisitak, saioak eta kontakizunak ez dute hutsik egingen. Neska-mutilek hurbiletik pilotarien eta pilota partiden ingurukoak jasoko dituzte.

Bi udal langile

Azken astean herriari zehar bando bat zabaldu da udaletxetik. Aitzineko ale batean aipatu bezala, Nafarroako Gobernutik herriko lanetarako langileak

kontratatzeko dirulaguntza hartu du Herriko Etxeak eta horren haritik, langabezia dauden eta enplegu zerbitzuan izena emana duten bi langile kontratatuko deialdia egin da. Herriko mendi eta karriken garbiketarako, kontserbaziorako eta mantenimendurako bi langile kontratatuko dira.

Goizuetara mendi ibiladia

Lerro hauek idazterakoan, ez dugu datuorik, baina, oroitarazi, larunbat honetan, Goizuetara ibiladia antolatuta duela Ekaitza Elkarteak. Ez dakigu zenbatek eman duten izena. Nolanahi ere, goizeko 8etan herriko plazan hitzordua jarri dute. Harat bazkalordurako ailegatuko dira eta Umore Ona Elkartearen otordua egin ondotik, etxera itzuliko dira. Arropak kotxez eramaten ahalko dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Amabirjin bestetarako prestaketak martxan

Urruti ematen badute ere, Amabirjin bestetako guzia martxan da. Herriko Etxeko kultur eta bestetako zinegotziaren deialdi bati erantzunez, joan den apirilaren 4ko ilunabarrean Besta Batzordea bildu zen. Herriko bestak borts egunez izanen dira, abuztuaren 14tik 18ra bitartean; eta egitarauko zenbait ekitaldi lotzen ari dira taldeko kideak. Hilabete honen hondarraldera bertze bilkura bat egingen dute zehaztasunak eta proposamenak josteko.

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ATERPE
ALBERGEA · JATETXEA

okane
HARATEGIA / URDAITEGIA
1988-1990-1991
Tfno/Fax: 948 630 018 · Kantilobern 12 - BERA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zelen · BERA · 948 630 052

BORTZIRIAK

Nafarroako Bertsopaper Lehiaketako Bortzirietako sariak banatu dira

Nafarroa mailako sari banaketa hilaren 23an eginen da Iruñean

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Bertsozale Elkartearen laguntzaz urtero antolatutako Nafarroako Bertsopaper Lehiaketak 23. edizioa bete du aurtén. Nafarroako 1.450 ikaslek hartu du parte eta horietatik 173 Bortzirietako ikasleek egin-

dako lanak izan dira.

Herralde mailako saridunez gain, eskualde mailako saridunak ere aukeratu dira eta apirilaren 29an Berako Kultur Etxean Bortzirietako sariak banatu egin zen. 230 ikaslek hartu zuten parte, eta ederki pasa zuten ikaskideen bertso sortekin, eta Oskar Estan-garen ikuskizunarekin.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bortzirietako sarituak apirilaren 29an Beran egindako ekitaldian.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako Bortzirietako lehen saria Le-sakako Tantirumairu ikastolako Paulo Ramosentzat izan zen; **5. eta 6. mailako** Bortzirietako lehen saria Igan-tziko eskolako Xabat

Matxikoterentzat izan zen; eta **Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako** irabazlea Berako Labiaga ikastolako Ibon Txoperena izan zen.

Horrez gain, aipatu, hainbat aipamen ere banatu zirela.

Eskualdetako sariemate jaialdiak bukatu ondotik, Nafarroa mailako irabazleek Nafarroako Gobernuak antolatutako ekitaldi batean jasoko dute haien saria, maiatzaren 23an Iruñean.



kalotxa
OPARIAK OSAGARRIAK



Legia 42, 31780 Bera [Nafarroa] · Tel. 948 631 516 · kalotxa@gmail.com

KULTURA

Institutuetako ikasleek kontzertuak eskainiko dituzte datozen asteetan

Bera, Leitza, Altsasu, Doneztebe eta Lekarozko ikasleek parte hartuko dute

ttipi-ttapa

Urtero bezala, Bera, Leitza, Altsasu, Doneztebe eta Lekarozko institutuetako ikasleek kontzertuak eskainiko dituzte datozen egunetan, ikasturte guztian musika arloan ikasi eta lan dutena erakusteko.

Lehenbiziko saioa **Beran** egingen da, maiatzaren 18an. Eztegara pilotalekuan bilduko dira, 17:00etatik aitzinera. Hurrengo hitzordua **Leitza**n egingen dute maiatzaren 20an. Pilotalekuan izanen da kontzertua, 17:00etan. Hi-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aitzineko aldietan bezala, aurten ere ikuskizun ederrak eskainiko dituzte ikasleek. Argazkia joan den urtean ateratakoa da.

ugarren kontzertua Altsasuko pilotalekuan egingen dute maiatzaren 22an, 17:00etan hasita. Laugarrena **Doneztebe**ko frontoian eskainiko dute maiatzaren 27an, 17:00etatik aitzinera. Azken kontzertua, berriz,

Lekarozko institutuko kiroldegian izanen da maiatzaren 29an. Hau ere 17:00etan hasiko da.

Urtero eskaintzen dituzten doinuak diferentek izaten dira eta aurtengoan hauek aukeratu dituzte, ohi bezala,

batzuk euskaldunak eta bertzeak kanpokoak: *Bidea gara, Se me olvidó otra vez, Like a rolling stone, Portsmouth, Marxa baten lehen notak, Izarren hautsa, Scottish, Hallelujah, Black is black* eta *Hung up*.

Zu munduarentzat pertsona bat zara bakarrik, baina pertsona batentzat mundua zara

LEHIAKETA

Lehiaketan parte hartu ahal izanen dute 18 urte bitarteko gazteak.

GAIA

Lehiaketaren gaia euskarazko piropoa izanen da.

PIROPOAK JASOTZEKO MODUA

Piropoak **maiatzaren 27a** baino lehen jasoko dira www.aiaa.net web orrian.

PIROPOA

Bortzirietako piropoak onentzako saria:

1. saria: Bizkiletan jaxka bike + eskainia
2. saria: MP4-a (bortzirietatik eskainia)
3. saria: Bi liburua eta CD bat

Bortzirietako piropo guztiek: Euskal Herriko 5. Piropo Lehiaketan parte hartuko dute eta bertan banabuko diren sariak jasotzeko aukera izanen dute.

Bi laguntzako egonaldiak ateratzea baita, liburuak, CD-ak, kamisetak, jokoak.

PIROPOA

Bildutako piropoekin eta parte hartzaileekin saio berezia egingen dugu Xorroxin Irratian.

ANTOLATZALEAK

LAGUNTZALEAK

Lebiaga Ikastola
Toki-Ona Institutua
Xorroxin Irratia

SAREKIDEGIA

3. bortzirietako piropo lehiaketa

SUNBILLA

Señorio de Sarria bodegara ateraldia antolatu du Ulibeltzak Elkarteak ekainerako

Ekainaren 5a baino lehen eman beharko da izena herriko ostatuetan

Jaione OTXANDORENA

Joan den urtean izandako arrakasta ikusita, aurten ere Ulibeltzak Elkarteak ardandegi batera ateraldia antolatu du, Señorío de Sarria-ra, hain zuzen. Datorren ekainaren 13an izanen da eta hau da egun horretarako prestatu duten egitaraua:

lindron erara edo ajoarrieroa. Postretarako goxua, kafea eta moskatel kopa. Ardoak, berriz, Señorío de Sarria Crianza, Señorío de Sarria Rosado ea Señorío de Sarria Chardonnay.

IZEN-EMATEA OSTATUETAN

Egun horretan parte hartu nahi duenak aitzinetik eman beharko du izena. Ekainaren 5a baino lehen herriko ostatueta jarritako zerrendetan egin beharko da eta izena emateko orduan 10 euro ordaindu beharko dira, horixe baita autobusaren balioa. Bazkaria, berriz, bodegan bertan ordainduko da, eta 32 euroko balioa du.

EGITARAUA

11:00etan autobusa aterako da Fonda ostatuaren ondotik.
13:00etatik 14:00etara bisita eta kata Señorío de Sarria bodegan.
14:30ean bazkaria. Bazkarirako menua ondorengo hau izanen da: etxeko aperitiboa, potxak edo pulpo entsalada epela. Bildotsa txi-



ARGAZKIAK: WWW.EUSKALKULTURA.COM

23. urtez segidan ospatu da amerikanoen besta

Bertze urte batez maiatzaren 1a egun garrantzitsua izan zen Ameriketako artzain egondakoentzat. Aurten 23. urtez segidan ospatu zuten egun eder hau. Batzuk gosaltzeko elkartu ziren eta gainerakoak eguerdi aldera bildu ziren. Guztira Ameriketako artzain egondako 29 lagun bildu ziren: Fermín Ariztia (Ituren), Alejandro Cordoba (Azpilkueta), Jose Luis Antxordoki (Igantzi), Migel Irigoien (Sunbilla), Josemari Jorajuria (Sunbilla), Fermín Ziganda (Ultzama-Iraizotz), Manuel Ganboa (Sunbilla), Fermín Zelaieta (Sunbilla), Frantzisko Arretxea (Sunbilla), Jose Irureta (Sunbilla), Juan Jorajuria (Sunbilla), Javier Agirre (Sunbilla), Jesus Dicastillo (Tiebas), Eusebio Zelaieta (Sunbilla), Josemari Jorajuria (Sunbilla), Jose Manuel Elizondo (Sunbilla), Julio Jorajuria (Sunbilla), Juan Iabon (Ultzama), Mario Jorajuria (Sunbilla), Jose Iturralde (Azpilkueta), Pedro Irigoien (Sunbilla), Luzio Irazoki (Sunbilla), Eugenio Arretxea (Sunbilla), Elias Huitzi (Igantzi), Manuel Agesta (Sunbilla), Santos Jorajuria (Sunbilla), Josemari Arretxea (Sunbilla), Jesusmari Jorajuria (Sunbilla) eta Juan Luis Alzugarai (Sunbilla). Bazkaria prestatzen ibili zirenak, berriz, Florentino Gelbentzu, Tiburtzio Espelosin eta Pascual Agesta izan ziren. Bazkalondan, kanpinera joateko ohitura izaten dute, Josemari Arretxeak Ameriketako artzainen erara egindako ogiarekin berendatzera, baina aurten eguraldiak lagundu ez zuelako Ulibeltzak Elkarteak gelditu ziren, batzuk kartetan eta bertzeak solasean. Afariarekin akitu zuten eguna.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ANZABAL
AGENTZIA

- Zurich Asegurak
- Aukeratu: etxebizitza, sarru eta bultzatze asegurak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, IRZa...
- Inmobiliaria
- Baserrit, bontze, presu, etab... salmenta eta alkatuek
- Gastoria
- Bilgaituen transferentziak, gogatzeko kamelaren kontak eta etxoen gaiako gaitiak

Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnua: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE

Erreka elkartearen egunaren hirugarren edizioa maiatzaren 30ean egingen da

Egun osoan kirol ekitaldiak izanen dira, eta gauean herri afaria eta dantzaldia

ttipi-ttapa

Erreka Kirol Elkarteak antolatuta, larunbat honetan zortzi, maiatzak 30, besta eguna izanen da. Denboraldi bukarri behar bezalako akaberak emateko, goiz goizean hasita kirol ekitaldiak antolatu dituzte. Aurtengoa hirugarren edizioa izanen da.

MAIATZAK 30

- Goizean Errekako gazteen eskubalo partidak kiroldegian: benjaminak, alebina eta infantilak.
- 12:00etan Errekako judo eskolako ena-erakustaldia.
- 16:00etan jubenil mailako mutilen eskubalo partida.
- 17:00etan jubenil mailako egungo nesken eskubalo taldekoak orain dela urte batzuetako jokalarien kontra.
- 18:00-18:30ean Errekako talde seniorra Iruñeko talde misto baten kontra.

Gauean herri afaria. Ondotik, dantzaldia Jaslisko Bandekin.

Obra berriak

Espainiako Gobernuak iragarri duen 269.376 euroko subentzioarekin kiroldegia haunditu egingen da eta erabakia behin betikoa ez bada ere, Udalak Harute enpresari esleitu dizkio lanak. Obra horien barme, muskulazio gela berria eta judo gela egingen dira. Horrez gain, kiroldegiko obrak aprobeztatuz, inguruan hainbat lan egingen dira, hala nola, zoladura-lanak.

Eskola ondoko biribilgunea egingen duen enpresa zein izanen den ere erabaki du Udalak. Obras y Reparaciones SL arduratuko da.

Bertalde, Elgorriagako zubia eta Baztan zubiaren tartean, erreka dragatu egin nahi da, eta obra horien esleipena hemendik aste batzuetara egingen dela adierazi digu Miguel San Miguel alkateak.



ARGAZKIAK: ZARBO

Bezeroek gozatzeko ekitaldiak

Doneztebarrak merkatarien elkarteak antolatuta, hainbat ekitaldi egin ziren maiatzaren lehenbiziko asteburuan. Bertzeak bertze, erakusketak, herri barna trenak, gaztelu puzgarriak, herri kirolak, erremonte partidak... Horrez gain, joan den urtean bezala, pintxo lehiaketa ere egin zen. Adin guztietako jendearentzako egitaraua osatu zuten merkatariek, bezeroen konfiantza eskertzeko helburuarekin.



**eUSKAL eskola
PUBLIKO
BERRIAREN
XIV. JAIA**

*bizi
euskal
eskola!*

**maiatzaren 24an
IRUÑEKO
TAKONERA
PARKEAN**

www.sortzen-ikasbatuaz.org

ITUREN

Yamiren erailketak samina eta haserrea eragin ditu herrian

Apirilaren 25ean erail zuten Cordovillan, auto batetik tiro eginda

Arkaitz MINDEGIA

Jaiotzez Kolonbiakoa zen baina azken zazpi urteotan Iturenen bizi zen Yami, 33 urteko emakumea. Baina zoritxarrak ustekabean harrapatu zuen apirilaren 25ean, Cordovillan hil baitzuten auto batetik tiro eginda. Polizia gertatutakoa ikeretzen ari da orain.

Ezbeharrak tristura eragin du herrian eta erailketa salatzekeo, kontzentrazioak egin ziren, *Yami gogoan zaitugu, Justiziazioen* pankartarekin. Hainbat iturendar eta inguruko herrietako jendea hurbildu zen, euren samina eta elkartasuna adieraztera, ezin baita ulertu gertatutakoa. Herrikanpo, Yamiren kasua salatu eta genero indarkeriarekin akitzeko eskatzeko, mobilizazioak egin zituzten apirilaren 30ean, Emakumeen Mundu Martxak deituta.

Lerro hauen bidez, besarkada haundi bat familia guztiari momentu hauetan pasatzen ari zarenarenagatik.

Zozketaren saridunak

Urte osoan sortzen diren gastuei aurre egiteko boletoak jarri zituen salgai Guraso Elkarteak

eta hauek izan dira sari-dunak:

Lehenego saria –Altxunea erretegiaren bi lagunendako afaria– 391 zenbakiarekin Zubieta-ko Sagrario Etxekolone-arentzat izan da; bigarrena –bi botil txapan– 715 zenbakiarekin Pierrieri tokatu zaio eta hirugarrena –zerrikume bat– 653 zenbakiarekin Zubieta-ko Mertxe Santestebani. Zorionak hiruei eta bide batez, eskerrikasko parte hartu duten guztiei.

Errekak garbitzea

Iturranara eta Aurtitz erreketan garbiketa lanak nork egingen dituen aste honetan erabakiko du Udalak. Deialdian hiru eskaintza aurkeztu dira eta horien artean aukeratuak lan hauek egin beharko ditu: belarrak eta sasiak garbitu, zuhaitzak neurtu, zaborrak bildu eta dragatu, 200-250 metrotan.

Lehendabiziko Jaunartzeak

Igande honetan, maiatzak 17, herriko hiru haurrek euren lehen-biziko jaunartzea egingen dute, Imanol, Gurutze eta Zuriñek.



ARGAZKIA: ZARBO

Hainbat lagun bildu zen Yamiren erailketa salatzekeo plazan egindako kontzentrazioan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaztetxoak dantza ikastaroetan

Ttikienek atsedenaldira itiki bat izan dute dantza ikastaroetan baina dagoneko martxan dira berriz ere. Klaseak Herriko Etxeko Ganbaran izanen dira larunbatetan 10:00etatik 13:00etara, hiru taldetan banatuta. Irakaslea Berako Gure Txokoa Dantza Taldeko Aitziber izanen da.

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

t tipi
tapa
☎ (0034) 948 635458

Etxeko Ardi Gazta
LIZUN
GAZTANDEGIA
Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

SALDIAS

Saldiasko xixa larreak

Jendea hasi da xixak biltzen

Markel LIZASOAIN

Udaberriari gaude, eta, udaberriarekin, xixak biltzeko tenorea izaten da. Bat-batean, jendeak makila hartu, eta paseatzera ateratzen da. Baita langar pixkaren bat ari badu ere. Akaso, baita nahiago ere langarra eta behe lainoa izatea. Hantxe ibiliko da belar artakan gustuko tokietan begira, Gora aldean, Urtas aldean edo Orbaitzu aldean. Hemen ez da, Formigalen bezala, xixa zakurik egiten, eta arraultze pare batekin tortilla egiteko dina bilduz gero kontent!

Ttiki samarrak badira eta gordean badaude, handitzera utzi. Nornahik ikusteko moduan badaude, egur puskarren bat hartu (usteltzea bada, hobe), eta, poliki-poliki, gainean paratu. Susmoa baldin bada norbaitek ere hartuko dituen, orduan ttikiak izanda ere, etxera. Labana hartu, ipurditik ebaki, eta zapi batean bildu-bildu

egin eta sakelara. Sumatzen da jendea ari dela aldian bakar batzuk biltzen, edo bakar batzuk baino gehiago, argazkian ageri den moduan. Jendeari zuzenean galdetuta, ez dute gauza handirik kontatu. Horregatik, horbarena aditutakoekin gelditu behar, eta, badaezpada ere, izen-abizenik eman gabe. Aurre horretan, bi lagun, barrideak, batak besteari: «*Izandu izanen haiz, bai, xixa larreak begirtzen?!*», erdi baleki bezala, erdi jakin-nahi. Bestearen kontesta: «*Bordan izandu nauk ardiak ateratzen*». Hala, ko elkarrizketetan egia esaten da; orain, egia osorik ez! Batzuetan, xixatan izandu direla aitortzen dute, eta parekoa lagun ona bada, baita nontsu ibili diren ere. Batzuek diotenez, seme-alabei ere ez zaie aitortzen non izaten diren xixa larreak, denak ez behinik behin.



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Udaberriko xixak, polit askoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Saldiasko irrati kukua

Orain ere Saldiasko haurrak ez daude geldirik egoteko; lehengo aldian, aktorekoan aritzeko balio dutela erakutsi zuten, eta, oraingoan, Xorroxinen lanean hasteko prest daudela irrati esatari. Otsonta eskolan, irrati saioak egin dituzte zuzenean, maiatzaren 4tik 8ra. 14:30etik aurrera eman dituzte saio horiek, eta gauza franko egin dituzte lau egunetan. Maiatzaren 5ean, esate batera, lehiaketa gisako bat egin zuten, eta aipatzekoa da herriko jende askok parte hartu zuela.



H. LOPEZ

FONTANERÍA • ITURGINTZA
Santiago 93, Elizondo
Tel. 948 452 126

BARBAKOAK
200€tik hasita



URROTZ

Hiru langabe hartuko ditu Udalak herriko lanetarako

Horretarako, 12.000 euroko dirulaguntza emanen du Gobernuak

Joseba URROTZ

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, azken urte hauetan bezala, diru laguntza eman du langabezian dauden pertsonak kontratatzeko. Dirulaguntza hau langilearen kontratazio gastuak ordaintzeko izaten da, herriarentzat intereseko diren lanak eta zerbitzuak egiteko. Aurten herriak hartuko duen kopurua 12.000 euro ingurukoa izanen da.

Aitzineko urtean, herri bazterrean dagoen labaderoa konpondu zen, argazkian ikusi daiteke zein ederki gelditu zen, eta horri segituz, aurten ere, baserri inguruan dagoen bertze labadero baten konponketari ekinen zaio, bertze lan batzuk eginen badira ere, astirik ematen baldin badu.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

lax konpondu zen ikuztegia.

Horretarako, hiru langile hartuko dira, ofizial bat eta bi laguntzaile, bi hilabate eta erdirako.

Deialdia ekainaren erdialdera aterakoda, kontratua uztaila, abuztua

eta irailaren erdia arte lan egiteko izanen baita.

Kontzertua ekainaren 7an

Nafarroako Gobernu Kultura eta Turis-

mo Departamentuak antolatzen duen Udaberriko Biraren barne, Muthiko Alaiak fanfarre taldearen eskutik musika emanaldia izanen da ekainaren 7an, 13:00etan.

BORTZIRIAK

Begiraleen lan poltsa osatu nahian Bortzirietan

ttipi-ttapa

Begiraleen lan-poltsa osatzeko deialdia egin du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. Batetik, begirale arduraduna lanposturako poltsa osatuko da eta hor sartzeko, Baxilergoa edo Goi Mailako Lanbide Heziketa titulua izan behar da eta Aisialdi eskola baten egiaztatutako begirale titulua. Begirale lanpostu poltsarako DBH izatea aski da. Zerrenda udaleku irekietarako begiraleak kontratatzeko izanen da. Eskaerak hilaren 29ko 12:00ak baino lehen Euskara Mankomunitatean aurkeztu behar dira: euskara@bortziriak.org edo Herriko Plaza 7, 31790 Arantza.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

2009ko udaberri-udako kolekzio berria

edredoi fundak
albornoak
edredoi nortikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

EZKURRA

Pilotalekuko zola berri egin nahi du Udalak

Krisia tarteko, zaila izanen da Nafarroako Gobernuaren subentzioa jasotzea

Fernando ETXEBERRIA

Elizaren azpian, Zurginearen ondoan egitekoak ziren paretako obrak akitu ditu Mariezkurrena enpresak. Apirilaren 22an egin zituen. Geroztik kamioiak goiko karrikara erraz pasa daitezke eta bereziki, herritarrok botatzen ditugunak biltzera pasatzen dena. Aurreko **Ttipi-Ttapa**ren ale batean iragarri bezala, lan hauek Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin egin dira.

Bestalde, Malerreka Mankomunitateak bi langabe kontratatu ditu markesina edo aterpea eraikitzeko. Hartara, eskolako neska-mutikoak eta Leizta edo Iruñera joan nahi dutenak autobusaren esperoan hor egoten ahal izanen dira.

BIDE BERRIA OLLIN ALDEAN

Udalak bestelako obrak ere baditu eskuartean. Esaterako, Ollin inguruan bide berri bat ireki nahi du Markotsola aldera joateko. Gisaberean, aipatu, Markarioren borda inguruan garbiketeta handia egin dela.

Udalak eginen dituen beste proiektuen artean frontoiko zola berri zezarena dago. Egoera kaxkarrean dago eta Udalak konponketak egin nahi ditu. Halere, krisi ekonomikoa dela eta, badirudi, zaila izanen dela Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasotzea.

ESKOLAK ERE OBRA BEHAR

Eskolaren kontua, orde, airean dago. Ikusi



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mariezkurrena enpresako langilean Elizaren azpiko paretan lanean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazteak sagardotegian

Argazkian ageri denez, neska gazte hauek ere sagardotegira joateko animatu ziren, aurtengo sagardoa dastatu eta trikitixaren erritmora dantzatzeko.

besterik ez dago, bai teilatua eta bai aurrealde

nagusia ere, egunetik egunero okerrera doa-

zela eta obra batzuen beharrean daudela.

behetik

Añorga-Ixiki, 14
T. 943 368 781
671 073 888
www.behetik.com

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!





plataformak • igogallu bereziak • ahulki bereziak...

Irurita
eta
Urdaizubiko
bestak
2009



J.P AGERREBERE
 Karrozeria • Aroztegi Metalikoa



Zaldubi Ind. • IRURITA • Tfnoa: 948 580 538

ARKUPE
 Gozotegia • Txokolategia

Txokolatea, urrazkoa, almendrazkoa, beltza eta zuria.
 Tabletak, bonboiak, trufak, Txokolate konfitatua.
 Tartak, etxeko izozkiak, pastelak, pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
 Iruña - Tel. 948 452 021 - 948 580 059
 info@arkupegozotegia.com
 www.arkupegozotegia.com

Composites Baztan
 Poliesterezko lanak



- Herrerdiatzaizmak, lerroak, sputatutak, inguruetak...
- Fosa egiteak, kolpe beratzailak.
- Karrosien arribazimenduzak, burgetak, eransailak, traktoreak.
- Era guztietako molde eta jostak egitea, jostaketa.



Tel-Faxa: 948 581 824
 compositesbaztan@ierria.es
 Zaldubi Industriakoa
 31730 IRURITA


OLARI
 jatetxea



jatetxea haize egokituarekin hornitua
 ongi pasa bestak!

Tel. 948 452 254 - IRURITA

Iruritako bestak



Pello Obregozo
 Iruritako alkatea

“Txirrindularitza sariaren orde, aurten herri lasterketa antolatu da”

Iruritan ere egitarau zabala prestatu dute Salvatore besta hauetarako. Pello Obregozo alkateak aipatu digunez, gazteek osatutako komisio bat da besten antolaketaz arduratzen dena eta Gurasoak ere laguntzaile dituzte, ahal den neurrian adin guzietako jendearendako moduko bestak egiteko. Ganda urtean bi asteburu hartu zituztenez, 50.000 euro inguruko aurrekontua izan zuten bestek, baina aurten 30.000 euroekin egingen dela uste du.

Halere, ekitaldiz ongi hornitutako bortz egun antolatu dituzte, tartean berrikuntza batzuk ere. Honela, lehen aldiz goitibehera lasterketa egingen da. Alkateak aipatu digunez, *“herriko bi gazte ari dira Nafarroako txapelketan eta proba bat Iruritan antolatzen ahal zela aipatu zuten eta honela egingen da”*. Hainbat hamarkadetan egingen den txirrindularitzako Salvatore Saririk ez da egingen aurten, *“segurtasun aldetik eta arras zorrotzak direlako, bidegurutze bakoitza bigilatzea eskatzen dute eta zaila da hori”*. Horren orde, lehen herri lasterketa antolatu dute, *“honela herrikoek kirol egiteko aukera izanen baitute”*.

Iruritako bestak *“guardasolen besta”* bezala ezagun omen dira eta eu-

riak sor ditzaken eragozpenak saihesteko aldera, duela sei bat urte karpajartzen hasi ziren. Orai, goizero karpa garbitzearekin hasten da eguneko besta egitaraua eta Obregozoren erranetan, *“giroa jartzen hasteko balio du. Jendea lau taldetan banatua dago, nahiz eta nahi duen guziaz har dezake parte eta auzolanean karpa garbitu eta gero gosari ederra egiten dugu”*. Errebotean jartzen den karpa horren azpian ostatua eta hainbat ekitaldi egiten dira. Baina besta guzietako ekitaldiren bat aukeratzekotan, baserrietan egiten den dianako eguna hautatzen du alkatea. *“Arras polita izaten da –dio Obregozok– inauterietan bezala baserrietara gaten gara, gosalduta... bestak herritik baserrietara eramateko modu bat ere bada”*. Egitaraua osatua dagoela iruditzen zaio Obregozori eta zerbait ekaritzekotan, *“Nafarroako herri kirol txapelketako saio onen bat ekarriko nuke, aizkora finalerdiren bat edo”*.

Salvatore bestak maiatzaren 20tik 24ra egingen badira ere, aitzineko larunbat eguerdian Artesiagako errepideko lanetan soldadu-batailoian aritu zirenei omenaldia egingen zaie Pitzamar inguruan eta ekitaldi honetan parte hartzen du Iruritako herriak ere.



Aurten, ekitaldiz ongi hornitutako 5 egun antolatu dituzte Besta Komisiokoek, tartean berrikuntza batzuk ere. Larunbateko Goitibehera proba da berrikuntza horietako bat.

maiatzak 20 ASTEAZKENA bezpera

12:00 TXUPINAZOA, Herri-buelta Baztango Gaitariekin. **16:30** Haurrendako jokuek Nafarroako Kutxa Fundazioak antolatua. **Ondotik**, Merendue. **17:00** Trinketeko I. esku pilota txapelketako semifinalak. **20:30** Dantzaldia MIKEL SALABERRIrekin. **20:00** EZKIL-JOTZEA **21:00** BAZ-TANZOPAK **01:00-04:00** Dantzaldia karpan MIKEL SALABERRIrekin

maiatzak 21 ORTZEGUNE Salbatore egune

09:00 Karpa garbitzea **10:00** DIANAK. **11:00** Meza nagusia. **12:00** Herriko DANTZARIEN ERAKUSTALDIA. **13:00** Luntx Herrikoia. **18:00** Trinketeko II. Esku pilota txapelketako finalak eta sari banaketa. **20:00** Dantzaldia GARRAXI taldearekin. **21:30** Mutil dantzak. **01:00-04:00** GARRAXI taldea.

maiatzak 22 ORTZILERIA Haur eta Jubilatuen egune


09:00 Karpa garbitzea. **10:00** DIANAK baserrietan. **11:30** HAURRENDAKO JOKUEK errebote plazan. **13:30** HAURRENDAKO BAZKARIE karpan. **14:00** JUBILATUEN BAZKARIE Olari jatetxean. GAZTE BAZKARIE Baigorriin. **15:30** HAURRENDAKO JOKUEK. **18:00** Txokolatada. **20:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **21:30** Mutil dantzak. **23:00** Rock kontzertue THE CHEESY POOPS eta TALDE SORPRESA. **01:00-04:30** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

maiatzak 23 LAUNBETA

08:30 Karpa garbitzea. Zikiroko mahai patzea. **10:00** DIANAK txarangarekin. **11:00** PATXIN eta POTXIN pailazoak plazan. **12:00** ARANABIAKO PALA GOMA txapelketako finala. **12:30** GOITIBEHERA proba. **14:00** ZIKIRO-JATEA. Sebastian LIZASO eta Sustrai Colina bertsolariekin. TXARANGA. **20:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. **21:30** Mutil dantzak. **01:00-05:00** Gaupasa LAIOTZ taldearekin.

maiatzak 24 IGANDEA

10:30 II. Haur-krosa. **11:00** Meza Nagusia. **11:30** I. HERRI LAISTERKETA **12:30** SARI BANAKETA eta luntxa partehartzailleendako. **18:00** Herri Kirol jaialdia ZURGAIN taldearen eskutik. **19:30** Dantzaldia BIXENTErekin. **21:30** Mutil dantzak. **Ondotik**, afarie inderra gelditzen zaienendako... Besten akabaila



Decor
sukaDeco
bainu eta sukalde estudioak

www.sukaldeco.com
IRURITA - 948 580 666

aroztegia 1890az geroztik
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK
ATAKAK HESIAK
LANGAK BALKOIAK

Arotxa

Miguel Azcárraga
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
Tel. 948 581 418 / 650 532 073
marotxa@terra.es

Maderas
GOMEN
engi para bertakli

Ere guztiako atak, jartak eta reguierak
Egur iturriak: tropikalak, herriak, gasferak, gnuak, urak...
Terretak eta urak herriak, gasferak, gnuak...
Tallerrak: malarriak, hidroizulak, matorriak...

Tel: 948 580 645 • Zaldubia industrialdea • IRURITA



BYRKAITZEA
OSTATU-ERRETEGIA

31711 - URDAZUBI
0034 948 599 280
609 803 429T

Urdazubiko bestak

Gazteen ardura izaten da herriko besten antolaketa, Gaztedia elkartearen bitartez

“Plazako giroa berreskuratzeko antolatu dugu aurten lehen aldiz kapelu jaurtiketa”

tuendako aterako dela espero dugu”. Zozketa hondaregunean egiten dute eta aurten lehen saria lau afari izanen da, bigarrena saski eder bat eta hirugarrena kaja-sorpresa bat.

Besten antolaketan arduradun gazteak izanik ere, adin guzietako jendearentzat moduko

ekitaldiak ekartzen saiatzen dira, batez ere herritarrei begira, Eiheragaraiak aipatu digunez: **“Adin guzietara saitzen gara begiratzen. Herri tikiak izan da adin guziak nahasteko gauz hori ederra iduritzen zaigu. Kanpoko jendea etortzen bada ere hobe, baino bestak herritarrenak dira”**.

Egitarauko xehetasunak aipatuz, sagardotegi mugikorak izaten duen arrakasta aipatu digu Maitek. **“Bertze urtetan ere ekarri izan da eta jendea aunitz gustatzen zaio. Enpresa bat arduratzen da eta kupel batzuk, pintxoak eta trikitixa ekartzen dute. Giro polita sortzen da: musika, txotx egiteko aukera...”**.

Aurten lehen aldiz kapelu jaurtiketa ere egiten da Urdazubin, jendea plazako giroan segitzeko. **“Zikiroaren ondokio -dio Maite Bengotxeak- kalejira egiten da eta xingar jatea izaten da plazan, baina igual jendea ostatueta-rra gaten zen eta plazako giro hori galtzen zen. Kapelu jaurtiketarekin giro hori berreskuratu nahi dugu”**.

Hain zuzen, zikiroa da Maitek bestetan inoiz galdu ez duen ekitaldia: **“Aunitz gustatzen zait, kriston giroa izaten da kalejiran, arras polita da”**.

Urdazubiko Salbatore besten antolaketa gazteen ardura izaten da eta horretan aritzen dira, Urdazubiko Gaztedia elkartearen bildutako 40 bat gazte. Aurten sortu den elkarte horren batzordean daude Maite Bengotxea, Aitor Ollo, Xeberro, Julen Huarte, Noel Eiheragarai eta Xabier Etxeberria. Egitarauaren antolaketaz beraiek arduratu dira, baina Maite Bengotxeak aipatu digunez, **“gero bilera egiten dugu, lanak banatzeko, barrako turnoak eta bertze hainbat lan banatzeko, paellada, zikiroa...”**. Errate baterako, Noel Eiheragarai arduratu da Kontrabandisten Lasterketaz eta berak aipatu digunez, antolaketa lana **“ez da difizila, baina bere lana eta denbora behar du, gauza guzietan beza”**.

Lanik handiena, beharbada, diru kontuak borobiltzea da, baina horretan laguntza handia izaten dutela onartu du Noelek: **“pixka bat denetik izaten dugu dirua lortzeko. Inautetan eskea egiten dugunean herritarrek ematen dute eta gero udalak ere dirulaguntza polita jartzen digu eta gu ere saiatzen gara bertze toki batzuetatik dirua biltzen, errifekin adibidez”**. Azkenean, 30.000 euro inguruko aurrekontua izaten dute bestek eta Noelek dioenez, **“azken urteak atera dira diruari begiratu eta aurten ere gas-**



Azkeneko urte hauetan sagardo-tegi mugikorrek errekista handia izaten du. Aurten, ortziralean izanen da, arratsaldeko 8etan.

Plazako giroa animatzea da antolatzaileen kezketako bat. Bide horretan, kapelu jaurtiketa prestatu dute aurten lehen aldiz. Larunbat arratsaldeko 8etan izanen da hori.



Adin guzietako jendearentzako ikusgarriak ekartzen saiatzen dira antolatzaileak, eta batez ere, herritarrei begira.

Jendearen artean estima handikoak izaten dira bestetan antolatzen diren herri-otorduak: bezperako afaria, paella jatea, zikiroa. Aurten horietako bakarren batera joan nahi duenak lehenbailehen txartela hartzeko eskatu dute antolatzaileek.



Indianoa Baita
ostuastua
ongi pasa bestak!
tel. 948 599 021 - Urdazubi

ETXELEKUA
Etxeko behi eta ardi gasna
Zugarramurdiako karretara
948 599 180 - Urdazubi

IRIARTEA BENTA
Chez Poyo
Oribain - Auzorribain - Lurru...
Tfnoa: 948 599 049 - DANTXARINEA - URDAZUBI

Faustino ETXABE tailerrak
Autoen konponketa
BESTA ON BATZUK PASA !!
948 599 038 - ZUGARRAMURDI

Ximera
SOLARUM
Besta eskerrak pasat!
Auzorribain Irudizaria 8:30 - 12:00 eta 14:30 - 18:30
Benta Peio - 31712 Dantxarinea
Tel. 948 599 062

Iñaki Alzuiet margoak
Pintura dekoratiboa eta industrialia
Dekorazioa: estukoak, beladurak
Fatxadak • Barnealdeak • Pladurra
Lakaturra eta barnizatuak kabinan
Harri eta egurra arenadorekin garbitzen da
ongi pasa bestak!
Itur-ttipi etxea - Landibar Auzoa
31711 URDAZUBI
Tel.: 659 862 417
pinturas.alzuiet@yahoo.es



Urdazubiko bestak

maiatzak **20** ASTEAZKENA

20:00 TXUPINAZOA. 21:30 Plazan AFARIA MODESTOK alaitua.

maiatzak **21** ORTZEGUNA

11:00 Meza Nagusia. 21:30 Aperitifa txistulari eta dantzariekin. 16:00 Haurrentzako jokuak. 18:00 Txokolatada. 21:30 PAELLA jatea. Ondotik KIKI BORDATXOrekin dantzaldia.

maiatzak **22** ORTZIRALA


12:00 GORRITI bere animaliekin. 14:00 UGARANA elkartearen bazkaria La Koxka ostatuan. 14:30 Dianak denak mozorroturik. 16:00 Haurren jokoak. 20:00 Sagardotegi mugikorra TRIKIHOTS taldeak alaiturik. 23:00 Rock kontzertua AIZKOR ERAUNTSIA taldearen eskutik. 01:00 GARRAXIrekin dantzaldia.

maiatzak **23** LARUNBATA

10:00 KONTRABANDISTEN lasterketa. 11:30 YINKANA. 14:30 Zikiroa "Inpresentables" txarangak alaiturik eta gero kalejira karriketan barrena. 16:00 Karrak frontoneko aparkalekuan. 20:00 Kapelu jaurtiketa. 21:00 Indar berritzeko zingar jatea eta giro onari eusteko JUANCHO EL CHARRO mariatxiek dantzaldia. 00:00 TRIKIDANTZ taldearekin dantzaldia.

Aurten ere lasterkalari mordoxka espero dituzte Kontrabandisten proban. Guztira, 10,3 km.ko ibilbidea osatu beharko dute partehartzaileek.





maiatzak **24** IGANDEA



16:00 LOS PICADORES DE VALL DE HECHOren eskutik motozerra ikuskizuna
17:30 Herri kirolak, sokatira...**19:30** Boletoen zozketa: zorte on!
20:00 Pintxoak denentzat.



ONGI PASTU BESTAK!!

Asteazkeneko afariko, paella jateko eta zikiroko txartelak fiteago hartzeko: Anastasi, Indianobaita eta Montxo

DANTXARINEA
 Gasolina-zerbitzugunea



Dantxarinea (Urdazubi)
 Tel. 948 599 250

ARRETXE
 Estankoa

Tabakodenda
 Zigarro puruen cava

Dantxarinea (Urdazubi)
 Tel. 948 599 018
 Fax. 948 599 015

Landibar Center

VENTA PEIO

Bera (Administratzaioa) 31780 BERA Tel 948 625 130 Fax 948 625 123	Dantxarinea 31712 URDAX Tel 948 599 389 Fax 948 599 480
Berdin 31780 BERA Tel 948 630 719 Fax 948 631 306	Luzaida 31660 LUZAIDE Tel 948 796 014 Fax 948 795 181



LUGARANA
jatetxea



MIKALA
Ostatua



KUPELA
Sagardotegia



NUBA









Erreserbak: (0034) 948 599 410 • fax: 948 599 411

BENTA LAPITXURI



Taberna · Jatetxea · Janari-denda · Tabakoa · Arropa-denda
Bisuteria · Lurrin-denda · Parafarmazia
Edertasun institutua

Ordutegia 8:30-19:30
Asteburuetan 8:00-20:00



Egunero irekita
948 599 093 - DANTXARINEA

MONTXO OSTATYA



Ogitartekoak
eta disko musika
goizaldera arte

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA · VRDĄZYBI
Dantxarineatik 2 km.ra

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

IKASTAROKAK

Kudeaketa eta marketin tailerrak egingen dira datozen asteotan Leitza, Doneztebe eta Elizondon

Izen emateko Cederna-Garalur elkartearen 948 625122 telefonora deitu behar da

ttipi-ttapa

Cederna-Garalur elkarteak kudeaketa eta marketin tailerrak antolatatu ditu Leitzaaldean eta Baztan-Bidasoaldean, negozio-idea bat duten sustatzaileei, azken bi urteotan sortuak eta sendotze bidean dauden enpresei eta euren jardura dibertsifikatzeko interesa duten negozioei zuzenduak.

Lehenbiziko tailerra Lekunberrin egin zen eta bigarrena **Leitza**n egingen da, hilaren 19tik 21era, 14:00etatik 17:00etara. Udaletxean egingen da *Merkataritza trebetasunak: nola harritu-ko ditut nire bezeroak* izenburupean. Salmenten profesional on batek behar dituen trebetasunak ikasi eta garatuz, gehiago edo hobeki saltzen erakutsiko da.

Maiatzaren 25etik 27ra, 14:00etatik 17:00etara, **Elizondoko** Arizkunenean emanen da hirugarren ikastaroa: *Publikitate nire negozioan: Merkataritza-plana*. Norbere enpresarentzat merkataritza plana nola landu eta betetzen ikasteko izanen da.

Maiatzaren 26tik 28ra, **Doneztebe**ko erakusketa aretoan, *Marketin eta animazioa saltokian* ikastaroa egingen da, 14:00etatik 17:00etara. Hondar tailer honetan, saltokia bitzta duen eta bezeroak erakartzeko xarmangarria den gune bihurtzen erakutsiko da.

Informazio gehiagorako edo izen emateko, 948 625122ra deitu behar da (10:00-14:00).

ICO - Rural Kutxa hitzarmena

Rural kutxa, ICO 2008 lerroen bidezko finantziazioan erakunde dinamikoa da, 170 milioi euro baino gehiagoko kontzesioekin.

Rural Kutxan, orain, eta

BETI

enpresa, autonomo eta partikularrak laguntzen ditugu.

ICO Pymes Lerroa
Aktibo finko berriak finantziatzeko ETEei (enpresa txiki eta ertainak) eta autonomoei.
Baldintzak:
- Gehienekoa: Inbertsioaren %100 maileruan edo leasing-ean, 1,5 milioi € gehienez.
- Epea: gehienez 10 urte eta epearen arabera (gehienez 3 urte), gabealdirako aukerarekin.
- Interes Tipoa: ICO + %1,75% erreferentzia, seihilabeteroko berrikuspenarekin.

ICO Plan Viva Lerroa
Ibilgailu berriak nahiz erabiltak finantziatzeko, pertsona fisiko, autonomo, mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainei.
Baldintzak:
- Epea: gehienez 5 urte, urtebeteko gehieneko gabealdiarekin.
- Interes Tipoa: lehen 10.000 € %0an, gainerakoa ICO + %2,5 erreferentziarekin.
- Komisionik gabe.

ICO Likidez Lerroa
Zirkulazioko kapitala finantziatzeko autonomo eta enpresa txiki eta ertainei.
Baldintzak:
- Zenbatekoa: gehienez 500.000 € onuradun bakoitzeko.
- Epea: 3 urte, 6 hilabeteko gabealdia barne.

Eta gainera
- ICO Emprendedores Lerroa
- ICO Crecimiento Empresarial Lerroa
- ICO Internacionalización Lerroa
- ICO Avanza Lerroa
- ICO Plan Renove Turismo Lerroa
- ICO Moratoria Pymes Lerroa
- ICO Moratoria Hipotecaria Lerroa

nire aukera



www.ferrovial.com
Tel: 948 610 002

GOIZUETA

Hasi dira Umore Onaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatzen

Peñaren argazki erakusketa egin nahi da, besteak beste

Esteban AROTZENA

Herritar gehienek dakitenez, aurtengo Ama-birjinetan 50 urte beteko ditu Umore Ona peñak, eta urteurren hau merezi bezala ospatzeko, abuztuaren 18ra bitarte burutu beharreko zenbait ekitaldi antolatzen ari da propio horretarako elkartu den lantaldea.

Peñarekin, eta orokorrean, Amabirjinekin zerikusia duten argazki bilketari ekin nahi diote lehenbailehen antolatzailuek. Jasotako argazkiak eskaneatu eta fotokopiatu ondoren, ikusgai paratuko dira herriko hainbat lekutan. Originala, jakina, jabeari emanen zaio gero.

Herriarentzat haundia den ekimen honetan, argazkiak utziz kolaboratu

nahi duenak Amaiarenera jo behar du hil honen bukaera baino lehen, han jasoko baitute peñaren eta Amabirjinen 50 urteko historia irudikatuko duen materiala. Ondorengo asteetan emanen dugu Ttipi-Ttapan urtebetetze borobil honen aitzakian antolatutako gainerako ekitaldien berri.

Musika emanaldia hilaren 23an

Folk musika egiten duen Mielotxin taldeak joko du Ganbaran maiatzaren 23ko 20:00etan. Udalarekin laguntzarekin Nafarroako Gobernuak hedatzen duen Udaberriko Bira programaren barrenekoa da emanaldi hau.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Baialtzinikin...

Apirilaren 30ean, Nafarroako Gobernuak eta Goizuetako eta Donostiako udaletako ordezkariak Artikutzan bildu zirela gure auzo horren etorkizunaz hitz egiteko?



Txinoko bestak, mundialak

Ezin gehiago eskatu. Giro bikainean joan ziren maiatzaren lehenengo asteburuan egin ziren Txino auzoko bestak. Ekitaldi guztiak arrakastuak izan ziren, baina batez ere, herri bazkaria, 300 lagun bildu baitziren.

Martiko
Poi Zabaen, 1/1
31790 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

DENDA
ORJUTZUA
ASTELORREKIN
ORTZIALERAN

8.30etik
12.30era
14.30etik
17.00etara

APARAN, S.A.

BOIXOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE




DENON ARTEAN ESKOLA HOBEAK



ERRENTA AITORPENA 2008

2009KO APIRILAREN 21ETIK EKAINAREN 23RA

2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA



Nafarroako
Gobernua

LEITZA

Hilaren 18tik 31ra Aste Kulturala

Denetariko ekitaldiak izanen dira XXXI. edizio honetan

Asier IMAZ

Astehenean hasiko da maiatzaren bukaera arte iraunen duen XXXI. Aste Kulturala. Denetarik izanen da, baina aldi honetan hilaren 29ra arteko ekitaldiak aipatuko ditugu. Gainerakoak hurrengorako utziko ditugu.

MAIATZAK 18

19:00etan liburutegian *leitzakultura.net*en aurkezpena.

20:00etan Aurreran **hitzaldia**: *Guatemala-ko bizipenak*.

MAIATZAK 19

20:00etan zineman **hitzaldia**: *eskularien eskuetako gatazkak*.

MAIATZAK 20

20:00etan Aurreran **hitzaldia**: *Atondu* liburuz; eta *Euskal Jantzien Atonitze talerra*.

MAIATZAK 22

15:30-16:30 eskolan *Xamariko jolasak*.

17:00etan eskolan **antzerkia**: *Xamarikoren kutxa magikoa*.

20:00etan Aurreran **hitzaldia**: *Jaki(te)jaz*.

23:00etan Peritzan rock **kontzertua** Hoey & The Mussels taldearekin.

MAIATZAK 23

11:00-13:00 igerilekuan **graffiti tailerra**: *emaiozu igerilekuan-ri sensualitate puntu bat* (12-15 urte).

12:00etan Gaztetxean **antzerkia**: *Eta karme*.

14:30ean Gaztetxean,

bazkaria.

Ondotik, **argazki emandaldia** eta **hitzaldia**: *Hegoameriketara bidai*.

19:00etan **kalejira** FTF Stree Bandekin.

21:00etan Gaztetxean **luntxa**.

23:00etan Gaztetxean **kontzertua**.

MAIATZAK 24

10:00-14:00 Gorritenean Peru-harrira **bisita** libre.

12:30ean **aurkezpena**.

18:30ean organo **kontzertua**.

20:00etan zineman **dantza garaikidea**: *Locus desertus*.

MAIATZAK 25

20:00etan Aurreran **ahozko ondarea** proiektuaren aurkezpena.

MAIATZAK 26

19:00etan liburutegian **hitzaldi-ikastaroa**: *Ordenagailu bat erosi duzula? Eta zertarako?*

MAIATZAK 27

19:00etan Aurreran **hitzaldia**: *Haurren adopzioa*.

Ondotik **jolasaldi** irekia.

MAIATZAK 28

20:00etan Aurreran **hitzaldia**: *1512ko Nafarroaren konkista*.

MAIATZAK 29

20:00etan Torrean **antzerkia**: *Nik egin beharko & ko*.

00:00etan Torrean heavy **kontzertua** Kantafloor taldearekin.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Amazabaleko ikasleak 'hezkuntza sistema propioaren alde' greban

Ikasle Abertzaleak apirilaren 30erako greba deialdiari erantzunez, Amazabal institutuko hainbat ikasle kalera irten ziren. Elkarretaratzea eta manifestazioaren ondotik, plazan bi taldetan banatu ziren ikasleak. Batzuk jolas egin zuten eta besteek, berriz, udaletxetik zintzilikatu zuten pankarta: *Gure Hezkuntza Sistema propioaren alde! Eskubide demokratikoen alde! Hezkuntza hezkidetzaillea! Euskal Eskola Nazionala!*

Donostiarako autobusa

Leitza-Donostia joan-etorria egiten duen Conda autobus konpainiak ordutegi berriak jarri zituen martxan hilaren 7an. Donostiara doan autobusa 11:45ean irtengo da egunero. Arratsaldekoa, berriz, 20:30ak inguruan. Donostiatik Leitzaera etorzen dena egunero 9:00etan irtengo da eta arratsaldekoa 20:15ean.

Herri Arteko Pilota Txapelketa

Nafarroako Herri Artekoan aurten 9 herrik hartuko dute parte hiru multzotan banatuta, eta tartean ariko da Leitza, taldean Uhartea eta Arbizu dituela. Herriko pilotari hauek jokatuko dute: Alduntzin-Iriarte seniorretan; Lezea-Eskudero alebinetan; Olano-Hernandorena infantiletan eta Jaunarena-Jaunarenajubeniletan.

XIBAn txapeladun

XIBA txapelketako bigarren saioa jokatu zen maiatzaren lehen asteburuan Goizueta eta Leitza irabazi zuen lehia.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Mugarriak ezagutzeko

Gure inguruneak ezagutzeko aukerak ez dira amaitu. Apirilaren amaieran herriko mugarren inguruan bi ekimen egin zituzten, baina ez dira azkenak izanen. Mugarrian non aurkitzen diren jakiteko Mendibil mendi taldeak, Aurrera Kirol Elkartek eta Kultur Taldeak mugarren inguruko hitzaldia eta mendi irteera antolatu zuen. Hitzaldia Migel Elosegik eskaini zuen.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Telefonoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxia: 948 610 856
LEITZA

ARESO

Areso, Arano, Goizueta eta Leitzako eskolen topaketa larunbatean

Besteak beste, jolasak, dantzariak eta bazkaria izanen dira

Juana Mari SAIZAR

Haur, guraso eta eskolen arteko topaketa egingen da larunbat honetan, maiatzak 16, Areson. Herritarrekin batera, Arano, Goizueta, Leitzakoak bilduko dira.

Helburua lau herrietako haurrak, gurasoak eta irakasleak jai giroan elkartzea izanen da. Horrekin batera, aisialdi osasungarria bultzatzen, ikasleak eta taldeek egingadako ekintzak gurasoei eta herritarrei erakusten eta Aresoko herria eza gutzen saiatuko dira.

Ekitaldiak goizean 11:00etan hasiko dira. Bazkalordura bitarte, jolasak, Leitzako dantzari ttikiak, Leitzako txistulariak eta Goizuetako Zahagi Dantza izanen dira.

13:30etik 15:30era bitarte bazkaldu egingen dute eta bazkalondoren, eskoletako umeen ekitaldiak izanen dira. Bukatzeko txokolata hartuko dute eta trikixia izanen da plazan.

Adur Etxezarreta bikain eskiatzen

Adur Etxezarreta, 13 urteko gazte eskiatzailerak, Nafarroko Eski Klubeko partaidea da eta izugarritzko marka egin

du: Espainiko Txapelketan hirugarren postua lortu baitu. Horretaz aparte, urteko eskiatzaileen sailkapenean infantilen kategoriako lehen mailan lehen postuan dago.

Txapelketa hiru fase-tan jokatu zuten: lehena eta bigarrena Candanchun eta Alto Campon izan zen, eta 60 hoberekin Sierra Nevada finala jokatu zuten. Hiru modalitate diferentetan lehiatu ziren kirolariak:

super gigante; gigante eta slalom deitzen direnetan. Super Giganten lehen postua lortu zuen; gigantean hirugarren gelditu zen eta slalomean laugarren. Sailkapen orokorrean, hiru probak hartzen dira kontuan eta hor hirugarren gelditu zen.

Kontuan izan behar da aste buruetan bakarrik entrenatzen duela, eta benetako dohaiak izango ditu Adurek horrelako markak egiteko,

Animo eta segi gogorlan egiten, hemendik aurrera zertaz hitz egin eman go du eta.

Olazabal aurrera

Beste kirolari bat ere aipatu behar dugu, oraingoan, Mikel Olazabal pilotari gaztea. Bigarren mailako eskuz banakako txapelketan parte hartzen ari da eta oraingoz bi partida irabazi ditu. Hori ere gogor lanean segitzeko animoak.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Santakruzeko erromeria

Maiatzaren lehenengo igandean, ohitura den bezela, Santakruzeko ermitara erromeria egin zen. Aurten eguraldiak lagundu egin zuen, baina jendearen parte-hartzea oso eskasa izan zen. Ohiturak mantendu nahian, batzuen esfortzua ikusten da, ermita garbi eta egun horretarako prestatua egoten delako, meza ondorengo hamaietakoa ere izaten da eta maiatzeko loreak neska gaztetxoek eskutik. Eskertzekoa da, eurei esker gauza eder bat zutik mantentzen baitira.

ARANO

176.700 euroko udal aurrekontua onartu da

Kontxi KLABER

176.782 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2009rako. Aurreko urtearekin alderatuz, jaitsi egin behar izan dute, Iñigo Larrea alkateak **Ttapa-Ttapa** azaldu dionez, «*aurrekontua jasotzen ditugun dirulaguntzen arabera izaten delako*». Horrez gain, Heinneken lantegiarekin ere gora-beherak izan litezke. Momentuz urte honi dagozkion tasak ordaindu ditu enpresak, baina diru hori galtzeko arriskua egon daitekeela aipatu digu alkateak, lantegiarekin gertatzen denaren arabera. «*Zehaztu gabe dago oraindik*».

Gainerakoan, aurtengo inbertsio nagusia mendietan lanak egiteko izanen da. Hala, aurrekontutik 33.000 euro horretara bideratuko dira.

Bestalde, aipatu, aparteko 22.500 euro aurreikusitako direla ur kanalizazioan obrak egiteko.

ZUGARRAMURDI/URDAZUBI

Dantxarineako zeharbideko lanak udarako akituak egonen dira

2,7 milioko aurrekontuarekin Azysa enpresa ari da lanak egiten



UTZITAKO ARGAZKIA

Zeharbideko zubi berria bukatzeaz dago.

Margari eta Koro

N-121B errepidean egiten ari diren zeharbideko lanak aitzinera segitzen dute, eta Urdazubiko Udaletik Ttipi-Ttapari adierazi diotenez, erritmo onean doaz.

Azysa enpresa da obra egiten ari dena, 2.718.000 euroko aurrekontuarekin. Lau hilabeteko epea du lanak akitzeko eta beraz, okerrik ezean, uda honetarako zeharbide berriak trafikoarentzako zabalik egon beharko luke.

Bere garaian aipatu bezala, zeharbideak sei biribilgune eta zubi berri bat izanen ditu. Hain zuzen, zubi berriko lanak bukatzeaz daude.

Ur hornidura sarean lanak

Ur hornidura sarearen lanak ere egiten ari dira Urdazubin. Udalkar A. Bengoetxea enpresari agindu dizkio lanak.

Proiektu hau 2005-2008ko Tokiko Azpiegitura Planaren barruan dago.

Urdazubiko bestak eta lasterketa

Urdazubiko Salbatore bestak laster izanen dira, maiatzaren 20tik 24ra. Egitaraua aldirikariko gehigarrian aurkituko duzue. Halere, aipatu, bestetako programaren barnean, kontrabandisten lasterketa eginen dela. Maiatzaren 23an, larunbata, izanen da, 10:00etan.

Proba honen berezitasuna, Sarako lasterketaren gisan, bai ateratzerakoan eta baita ailegatzerakoan bizkarraren karga eramaten dutela da. Bertzalde, aurtun aldaketa bat izanen da: plazan finitu beharrean, Etxeberria ondoko belategian finituko dela, 10 kilometro eta 300 metro egin ondotik.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Sokatira jardunaldia Zugarramurdin

Apirilaren 23an Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketaren lehen saioa egin zen Zugarramurdin. Bestetatik aparte, ez dugu sekulan kirol hau ikusteko aukerarik izan herrian, eta gainera, bertze bixigarri bat ere izan zuen txapelketa honek: gure herrietako gazte batzuek ere parte hartu zutela. Urdazubiko Miren eta Maite Bengoetxea eta Elena Ansalas Amaiurko taldean aritzen dira, eta bi urdazubiarrak aritu ziren egun honetan. Lau pisu diferenteetako taldeak ziren, eta guztien buruan hauek izan ziren jardunaldiko irabazleak: emakumezkoen 250 kiloko kategorian, Amaiur izan zen irabazle eta 265 kiloko mailan Sakana; gizonezkoetan, Amaiur eta Berriozarko bi taldeak berdinketarekin gelditu ziren; eta kadeteen mailan, Basaburua eta Txantreakoak berdindu egin zuten. Txapelketako bigarren jardunaldia ere jokatua da eta hirugarrena eta azkena larunbat honetan jokatuko da Berriozarren. Xehetasun gehiago kirolen atalean.

BURKAITZEA
- ostaltzi
- erretegia
Zugarramurdi bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

HESSING
EXTREME
EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542319
Maison des Vétérinaires
SARA

Eskisaroi
Jaiak
Jaime Urzua
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Barritx auzoa - Tfnoa: 948 582 043
ORONÓZ · MUGAIRI

BAZTAN

Frankismoan ‘bortxazko lanak’ egin zituzten presoak omenduko dituzte larunbatean Iruritan

Horrez gain, Bigarren Errepublikari buruzko hitzaldia izanen da ortziralean

ttipi-ttapa

Francoren diktadura garaian, Baztanen halabarrez lanean aritu ziren presoak omenduko dituzte asteburu honetan Iruritan, Udalak, Iruritako herriak, Geronimo de Uztariz Institutuak eta Memoriaren Bideak erakundeak antolatuta.

Bertzeak bertze, Iruritatik Artesiagara doan bidea egitera behartu zituzten preso errepublikarrak eskualdean, eta horiek izanen dituzte gogoan omenaldian.

Ekitaldi nagusia larunbatean, maiatzak 16, izanen bada ere, lehenagotik ere izan da eta izanen da bertzelakorik. Maiatzaren 8an, erraterako, *Desafectos: Esclavos de Franco en el Pirineo* dokumentala ikusteko aukera izan zen Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Ortziralean, berriz, maiatzak 15, Bigarren Errepublikari buruzko hitzaldia eskainiko du

Emilio Majuelok Irurita-ko Gizarte Bilgunean: *La Segunda Republica: Ricardo Zabalza*. 19:30ean hasiko da.

Omenaldia, berriz, larunbatean egingen da Irurita-Artesiagako bidearen 13. kilometroan, Pitzamarren. 12:00etan hasiko da ekitaldia eta bertzeak bertze, eskultura bat paratuko dute.



ARGAZKIAK: ANA VILLORIA

Artesiagako errepidea Francoren garaiko presoekin osatu ziren langileen batailoiek egin zuten. Tartean zegoen Iruritan bizi den Pedro Aranguena *Bixkai*ere. Goiko argazkian batailoian ageri da eta behekoetan Pedro Aranguena orduan eta gaur egun.

calzados



oinetakoak

Beti nahi izan dituzun oinetako markak, orain ELIZONDON



ireki berria

oinetakoak helduentzat eta haurrentzat

Santiago kalea, 47 - Elizondo - tel. 948 452 457

BAZTAN

Behi kakak erabakiko du Xorroxin Irratiaren aldeko zozketa

Dirua biltzeko zozketa berezia uztailaren 26an egingen da Elizondoko belagi batean

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzak %96 murriztu direla-eta, diru iturri berriak bilatzeko bidean zozketa haundi bat egingen du Xorroxin Irratiak uztailaren 26an, Elizondoko Santiago bes-tetan. *Behikaka.com* izena jarri diote ekimenari eta bertze zenbait lekutan egin den bezala, behien kakak erabakiko du sariduna. Kasu hone-tan, hiru behi sartuko dira Xorroxin egoitzaren parean dagoen belagian. Belagia metro erdi luze-zabal izanen duten 4.000 laukitxoetan banatuko da, guzira 50 lerro eta 80 zutabe osatuz eta laukitxo horiek salgai jarriko dira, 5 euro balioko du-ten boletoen bidez.

HIRU SARI BIKAIN

Hiru behi sartuko dira belagian. Lehenbizi-koaren kakak hirugarren saria emanen du: Zumaia-ko Karakas landa-etxean bi lagunendako



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Xorroxin Irratikoek behi eta guzi eman zuten aurkezpen prentsaurrekoa.

asteburuko egonaldia; Zumaia-ko Talasozelaita-lasoterapia gunean zirku-ito bat hamar lagunendako eta Basakaiz esneki lotea.

Bigarren behiaren kakak bigarren saria erabakiko du: Izabako Txapatera landa-etxean 6 lagunendako asteburuko egonaldia; Arabako Murrua herriko Gorbeia landa-etxean bi lagunendako asteburuko egonaldia, Aizarozko ostauan bi lagunendako afa-ria eta Lurlan produktu

lotea.

Hirugarren behiaren kakak lehen saria banatuko du: Enkarterrietako Amalurra hotelean astebeteko egonaldia bi lagunendako; Castillo de Gorraiz hotelean bi lagunendako afa-ria, spa eta gaua, Arzak jatetxean afa-ria bi lagunendako eta Aroa ardo lotea.

EPAILE ETA GUZI

Ekimena apirilaren 28an aurketu zuten Xorroxin Irratiko kideek. Fernando Anbustegi esata-

riak jakinarazi zuenez, «*behiak kaka egiten duen laukitxoaren jabea izanen da sariaren irabaz-lea, baina dudak ere sor daitezke, zein laukitxo-tan egin du kaka, non ha-si eta bukatzen den... guztiak argitzeko arauak idatzita daude eta hiru epaile arduratuko dira. Eta kaka egiten ez ba-du? Hori ere arauetan ageri da*». Dirua biltzea da helburuetako bat, bai-na Xorroxingo langileek argi utzi dute ez dela ho-ri bakarrik izanen: «Uz-

tailaren 26an besta ttiki baten moduan planteatu-tuko dugu zozketa, mu-sika, zuzeneko irratsaioa, bertsolariak, jokaldi ho-berenen komentarioak... izanen ditugu, eta tra-goxxkaren bat hartzeko ostatua ere bai».

Kamisetak ere atera dituzte zozketa berexi ho-netarako, eta irratiaren eta bertze hainbat puntutan salgai izanen dira. Zozketa urtero egiteko as-moa dute eta horren inguru-ko informazioa www.behikaka.com hel-bidean egonen da.

Xorroxineko kideek eskerrak eman nahi izan dizkiote Lore, Zagua eta Erdiz behiei, ideia izan duen Xabi Ballarenari, behiak zaindu eta ekarri dituen Jokin Ramirezi, Dani Fano marrazkila-riari eta belagia utziko dien Fermin Arrasateri, baita saria posible egin duten komertzioei eta 28 urte hauetan, publizita-tearen bitartez lagundu duten hainbat komertzio-ri ere.

MAIATZA
OSOAN 3 PIEZAKO
KOTXEZITOETAN
50eko DESKONTUA

POTTOKI
Bastanberrri Plaza, 3 - behea • ELIZONDO
T: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

**APIRILAREN 24tik
MAIATZAREN 24ra**

**AUTOKO SILLETA,
MAXI COSI, BEBE CONFORT
ETA ROMER MARKETAN
%15-%20ko
DESKONTUAK**

**BAZTAN
IKASTOLA**
BZXL ESKOLE PUBLIKOZ

Baztan Ikastola
Mendinueta z/g
31700 ELIZONDO
baztan@ikastola.net

Baztan Ikastolak 2009-2010 ikasturterako irakasle hauek behar ditu:

Ingelesa espezialitatea duen irakasle bat lanaldi osorako.

Lehen Hezkuntzako irakasle bat egun erdiko lanaldirako.

Curriculumak aurkeztzeko epea: Maiatzaren 11tik 25era.

BAZTAN

Foru Poliziaren komisariak desadostasuna sortu du auzotarren artean

Baztanberriko barrideek dagoeneko 670 inguru sinadura bildu dituzte

Maite OTEIZA

Berriki, Javier Caballero Nafarroako Gobernuako Barne kontseilariak eta Virginia Aleman alkateak Elizondon Foru Poliziaren komisaria berria eraikitzeko akordioa sinatu dute. Baina gaia ez da denen gustukoa.

Gauregun, Elizondoko Santiago karrikan duten bulegoa Baztanberri plazara lekualdatuko da. Eraikina Udalak dohai-rik utzi duen lur eremuan egitea da asmoa. Gastuak, berriz, Gobernuak hartuko ditu bere gain.

Proposamen honek, baina, desadostasunak eta kritikak eragin ditu. Alde batetik, bertako barrideek erabilera publiko eta soziala duen lekua galduko luketela diote, eta eragozpenak sortuko direla. Lerro hauek idazterakoan auzotarrek 669 sinadura bilduak zituzten komisaria Baztanberri egitearen kontra.

Bertzetik, foruzainen sindikatuek ere euren desadostasuna agertu dute, oraingo egoitzean egin den gastuarengatik, eta «*behin behineko zerbait*» zela, ez zelakoz behin ere argudiatu.

Lerro hauek argia ikusi orduko, Xabi Torres Eli-

zondoko alkateak elizondarguztietan batzar baterako deia egin zuten, gaiari buruz mintzatzeko.

Berroetako bestak

Berroetako Mendekoste bestak maiatzaren 29, 30, 31 eta garagar-tzaroaren 1ean egingen dira. Egunez eguneko xehetasunak hurrengo alean aipatuko ditugu.

'Metaziri' ren ale berria

Metaziri aldirikariaren 11. alea maiatzaren 29an aurkeztuko dute Elizondoko Gaztetxean. 20:30-erako paratu dute hitzordua. Aldizkariko gaien inguruko eztabaida ere egingen da.

Lekarozko kolegioa

Lekarozko kaputxinoen kolegioan etorkizunean zein proiektu egingen den oraindik ez dago erabakia, baina bizpahiru urte barru jarduera eremu berria martxan egonen dela adierazi du Alvaro Miranda Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun kontseilariak. Apiril hondarrean PSNk egindako galderari erantzunez eman zuten azalpenak Miran-

dak Parlamentuan.

Martxoan Lekarozko Ikasle Ohien Elkarteak, Udalak eta Nafarroako Gobernuak akordioa sinatu zuten egoitzaren

etorkizuna erabakitzeko. Apirilaren 6an, berriz, proiektua nondik jo jakiteko SPRIN erakundea kontratatzeke erabakia hartu zuen Kolegioaren

inguruan eraturako batzordeak. Ideien lehiaketa egin eta egokiena dena egitea izanen da hemendik aitzinerako pausoa.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Lekarozko institutuko ikasleak irratiafizionatu

Iratia Eskolan Europako Egunean parte hartu zuen lehenbiziko aldirikariaren (URP) ekimenez, bi irradi emisora ezarri ziren Nafarroan eta horietako bat Lekarozko institutuan. Honela, ikasleek zuzenean irratiafizionatuen mundua ezagutzeko modua eduki zuten, mikrofonoen bitartez mezuak igorritik eta irratia bidezko kontaktuak eginez parte hartzen duten ikastetxeekin eta bertze herrialdeetako irratiafizionatuekin.

ttipi txartelarekin beti irabazten
deitu 948 635 458 eskatu zurea

40€rekin
Harpidetza, 40 dendetan deskontuak, hamabostero zozketak eta gainera, errenta aitormenean %25 itzultzen dizute

SARA

Dellier eta Lizardi urruñarrek irabazi dute Joko Berri Txapelketa

Pleka Trinketeko Pala Txapelketaren final nagusia bestetan jokatuko da

Xan HARRIAGUE

Joko Berri Txapelketaren garaikurrak Urruñara joan dira aurtentzen. Dellier eta Lizardi irabazi dute finala Aranburu eta Yousteden kontra 40 eta 25 nagusituz. Maiatzaren 2ko arratsaldean jokatutako ziren aurtengo finalak, eta lehen bezainbat jende ez bada ikustera joaten ere, giro polita izan zen.

Bigarren mailan finala zertxobait orekatua izan zen, baina azkenean, Dibar eta Arozena nagusitu ziren 40 eta 29 Housset eta Ezkurraren kontra.

Hirugarren maila garaipena Iribarren eta Merlorentzat izan zen Saint Martin eta Guilsou menean hartuz 40 eta 22.

Laugarren mailako finala markagailu berearekin finitu zen. Goienetxe eta Mendiondek 40 eta 22 irabazi zieten Irazoki eta Larrondi.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Pleka Trinketeko Pala Txapelketako txapeldunak eta txapeldunordeak antolatzaileekin batera.

Pala txapelketa

Finala erabaki gabe gelditu da maila nagusian. Ladebat eta Iturbisque 31 eta 25 aituzinean zirelarik, Artayet eta Dorisbournen kontra, batek min hartu zuen, eta ezin izan zuen partida segitu. Baina ez dute finala horretan utzi, eta hura finitzea ala errepikatzea onartu dute herriko bes-

ten asteartean.

Gaineratiko hiru finaletan ez zuten problema izan. Bigarren A mailan Halsouet eta Sorhouet nagusitu ziren. Finalean Lafitte eta Lafitte bikotea menean hartu zuten 50 eta 41. Bigarren B mailan, berriaz, Halsouet eta Peyreblanque dira aurtengo txapeldunak, finalean Neys eta Fourme-

au garaitu baitzituzten 50 eta 37. Hirugarren mailan izan zen finalik estuena. Delavaca eta Larretxerentzat izan zen garaipena, baina lan anitz egin behar izan zuten Larramendi eta Larronde menean hartzeko 50 eta 46.

Atxurin Urdinen ateraldia

Atxuri Urdin, Reala fut-

bol taldeko peña, Huescan (Espainia) egon da han jokatu baitzuen duela hiru aste Donostiako taldeak. Hemezortzi lagun joan ziren, gehienak herrikoak baina Oiartzungo (Gipuzkoa) eta Berako adiskide batzuk joan ziren haiekin. Egun pasa egin zuten eta Realaren garaipena ikusi eta gero etxera itzuli ziren. Realak 2 eta 1 irabazi zion Huescari.

Hitzaldia 1609ko hilketen harira

1609ko sorginen auziaren urteurrenaren harira, hainbat hitzaldi egiten ari dira Lapurdin, eta horietako bat Saran egiten da. Ekainaren 20an, *Mugak: no-laz eta noiztik?* gaiari buruz mintzatuko da Aitzpea Leizaola, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Ortiopitzen izanen da ekitaldia, 21:00etan hasita.

Okindegia	Jatetxea
Uxoa	
	
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata	
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)	
Especialitatea parrillan erretako jakietan	
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!	
Ordoki Industrialdea Tfnos: 948 453 403 31713 ARIZKUN	

	 ANTXITONEA Trinketea
	Jatetxea - Ostatua Hotela - Trinketea Menu Bereziak Braço iriatse karrika ELIZONDO Tel: 948 581 807 - 948 581 853

SENPERE

Errugbylariak Fédérale hiru lerroan sailkatzeak besta giroa piztu du herrian

Aurten 25 urte bete dira Senpereko errugbilariek Frantziako txapelketa irabazi zutela

Franck DOLOSOR

Milesker. Hitz hau irakur daiteke egun hauetan Senperen dagoen bandera batean. Aitzineko egunetan, *Aupa SPUC* afitxak ikus zitezkeen nonahi herrian. SPUC herriko errugbi taldeak berriki egin duen balentria aipatzen dute ikur hauek.

Maiatzaren 3an, Larresororen kontra Landetan jokatu duten Ohore saileko finala ez dute berehala ahantziko Senpereko errugbilariek. Alta, eguna gaizki hasi zuten, Ubiriak eta Arrayagok min hartu baitzuten beroketan. Hala ere, zelairatu zirenek onena eskaini eta sorpresa handia sortu zuten. Lehen denboraldiaren bururatzean 26 eta 0 egin zuten markagailuak SPUCen alde. Oren bat geroago, 29 eta 17 zenbakiak ageri ziren markagailu berean. Larresoroko mutilen kopetak ilunak ziren bitartean, poza nagusi zen senperarren artean.

Kirolariek garaipenaren ikurra erakutsi zuten besta giro paregabearen segitzaileak inguruan zituztelarik. «*Gutitan bizitzen den poz haundiko momentua*



ARGAZKIA: PELLO FAGOAGAK UTZITAKOIA

1973an, Frantziako txapelketako final-laurdenak jokatzera heldu ziren senperarrak. Lehenagoko gazte hauek fiersko dira gaurko jokalariek egin duten balentriaz!

izan zela», erran dio **Ttipi-Ttapari** David Gaillet taldeko kapitainak. Gero, xanpaina edan zuten aldageletan eta ospakizunak segitu zuen Saint Sever-eko herrian.

Gauerdian, jokalariek eta segitzaileak Senpererat itzultzean, garai-pena haundizki ospatu zuten berehala Amotzeko Blankartegian. Mendionde familiaren ostatuan «*erregeak bezala hartu zituztela*» ez du sekulan ahantziko Gaillet-k.

25. URTEURRENA

Maiatzaren 8an, besta handia egin zuten Senpereko errugbilariek.

Frantziako txapel-dunak izan zirela 25 urte bete direla gogoratu zuten eta denbora berean ustekabeko garai-pen berria behar bezala ospatu zuten.

Senperetarrek irabazteko sorpresa izan dela diote errugbi adituek eta prentsak. Larresorotarrak *Larresoro txapel-dun* zioten gapeluak prestatu zituzten aise nagusitzea pentsatzen baitzuten. Dena den, ohore saileko ikurra Senperen da orain eta gure herriko taldea Fédérale hiru sailean ariko da hemendik goiti. Frantziako txapelketan sailkatu dira, eta beraz,

partida bat jokatu behar dute oraino ondoko egunetan.

Hiru herritar bikain aintzirako triatloian

Azken momentuan agertu ziren errusiarrak nagusitu ziren maiatzaren 2 eta 3ko asteburuan, aintziraren inguruan iragan zen triatloian. Biegunetan, 1200 kirolari aritu ziren nor baino nor zeruan iduzkia nagusi zelarik.

Igande goizeko frogan, 750 metra igerika, 20 kilometra bizikletez eta 5 kilometra lasterka egin behar ziren Sprint deitu sailean. Bergerac-

eko ordezkari bat izan zen onena, oren bat eta hamar minuta eman baitzituen ibilbide osoa egiteko. Ondotik, hiru senperetar ziren: Jérôme Bergara ibarrundarra berrogoigarren tokian, hamar eta bederatzi segundatarat; Alain Munduteguy helbarrundarra hirurogoita bederatzigarren lekuan, hamabortz minuta eta berrogoita hiru segundatarat; eta azkenik Antoine Arnal Saint Christophe ikastetxeko irakaslea ehunta hogoita hamabortzgarren tokian, hogoita hiru minuta eta berrogoi segundatarat. Orotarat, 220 lagunek parte hartu dute lehiari eta beraz, argi da senperarrek toki onak erdietsi dituztela.

Aintzirako bestak hilabete akaberan

Azken bi urteetako ohitura jarraikiz, aintzirako bestak maiatzaren 30ean iraganen dira. Aurten hiru berritasun daude, arratsaldean pentanka zoingehiagoka egingen dela, oturuntza arratsean izanena dela eta pittaka jateko partez, xerri tiki errea das-tatzen ahalko dela.

2 SARRERA

Artic

5767

BIDALI ttipi saskia

Izotz Jauregia

EZKONTZAK

Igor Aldaia Zabaleta eta **Ana Isabel Aliseda Saquete**, Leitzakoa eta Madrilekoa, apirilaren 18an Leitzan.

Juan Jesus Olano Villabona eta **Ernestina Martinez**, Leitzakoak, apirilaren 27an Leitzan.

Jose Javier Aierdi Arribillaga eta **Amaia Azpirotz Rekondo**, Tolosa eta Leitzakoa, apirilaren 18an Leitzan.

Aitor Perurena Eskudero eta **Sandra Polanco Monsalve**, Leitzakoak, apirilaren 25ean Leitzan.

Ander Gaston Lujanbio eta **Narao Arroio Regeiro**, Goizueta eta Donostiakoa, apirilaren 25ean, Goizuetan.

Jose Miguel Otxoteko Irtzoki eta **Elisabeth Asto Mendoza**, Lesaka eta Perukoa, apirilaren 18an Lesakan.

Jose Manuel Iribarren Arretxea eta **Olatz Maia Elizondo**, Doneztebe eta Lesakakoa, apirilaren 25ean Lesakan.

Miguel Alfonso Feito Bergara eta **Irene Lopez Barrachina**, Lesaka eta Sabadellgoa, apirilaren 25ean Lesakan.

Patxi Abete Otazu eta **Idoia Etxenike Martinez**, Iruñeakoak, maiatzaren 2an Zugarramurdin.

Fernando Irazoki eta **Itziar Agirre**, Lesakakoa eta Etxalarkoa, maiatzaren 9an Etxalarren.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Ekai Elortza Rekarte, Donamariakoa, apirilaren 18an.

Nahia Ziganda Bengoetxea, Doneztebekoa, apirilaren 21ean.

Omar Irtzoki Ezkurra, Sunbillakoa, apirilaren 27an.

Irati Telletxea Ezkurra, Leitzakoa, apirilaren 18an.

Añez Iribarren Valverde, Etxalarkoa, apirilaren 24an.

Julen Baleztena Otxotorena, Leitzakoa, apirilaren 30ean.

Leire Maritorea Erroz, Anizkoa, maiatzaren 6an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Jose Luis Iribarren Perurena, Goizueta, apirilaren 21ean, 49 urte.

Jesus Etxegia Berroeta, Goizueta, apirilaren 29an, 76 urte.

Juliana Etxegarai Lastiri, Erratzukoa, apirilaren 23an, 87 urte.

Pilar Aginaga Arribillaga, Berakoa, apirilaren 23an, 82 urte.

Jesusa Cambroner Benito, Elizondokoa, apirilaren 25ean, 82 urte.

Consuelo Fernandez Lopez, Lesakakoa, apirilaren 28an, 59 urte.

Jesus Goia Errandonea, Berakoa, apirilaren 28an, 50 urte.

Pilar Iturralde Barberena, Erratzukoa, apirilaren 29an, 95 urte.

Jose Mari Baleztena Monaco, Leitzakoa, apirilaren 29an, 45 urte.

Yamiled Giraldo Quintero, Iturengoa, apirilaren 25ean, 33 urte.

Hilario Barbezuguy Bikondo, Arizkungoa, apirilaren 30ean, 82 urte.



Fernanda MARIEZKURRENA BAZTARRIKA

Eratsunen, 2009ko apirilaren 19an

*Emazte ona, ama zoragarria
eta amatxi ezin hobea.*

*Erraza izan da zu maitatzea,
baina ezinezkoa zu ahaztea.*

*Nahiz eta urruti egon,
beti gure bihotzean egongo zara.*

MAITE ZAITUGU

ZURE FAMILIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

MENDIA

Baztango Mendi Martxa maiatzaren 31n egingen da Zigan hasi eta akituz

34 kilometroko ibilbidea eta 1.950 metroko desnibela izanen ditu

ttipi-ttapa

Berako Mendi Itzulia-ren ondotik, Baztanek hartuko du eskualdeko mendi ateraldien lekukoa. Maiatzaren 31n Baztango Mendi Martxa egingen da, aurten XVI. aldiz. Ibilaldia urtero diferentea izaten da eta oraingo honetan, Zigan hasi eta akituko da.

34 kilometroko luzera eta 1.980 metroko desnibela duen itzulia egin beharko dute mendizaleek. Bataz bertzeko iraupena 8 ordukoa izanen dela iragarri dute Baztango Mendigoizaleak antolatzaileen elkartetik.


Izen-ematea eta irteera Zigako frontoian izanen dira, baina, aipatu,

Baztango Mendigoizaleen web orrian ere eman daitekeela aitzinetik izena (www.baztangomendigoizaleak.org). 10 euro ordaindu beharko dira. Ibilaldia 7:00etatik 7:30era abiatuko da.

Izena ematean parte-hartzaile bakoitzari emanen zaion txartela kontrol guzietan erakutsi beharko da.

ANIZ ETA BERROETAKO LURRETAN

Zigako frontoitik abiatuz, hauek izanen dira ibilbidean igaroko diren lekurik aipagarrienak: Aniz, Berroeta, Santa Barbara, Mendiola (le-



ARGAZKIA: WWW.BAZTANGOMENDIGOIZALEAK.ORG

Baztango XVI. Mendi Martxa 34 kilometrokoa izanen da, iaz Arraiozen egin zena bezala.

henbiziko kontrol puntua), Belate (bigarren kontrol puntua), Gartzagako Lepoa, Kanala (hirugarren kontrola) eta be-

rriz Zigara itzuli beharko da. Bidean janari eta osasun zerbitzua eskainiz postuak egonen dira. Ez da sailkapenik ego-

nen eta kontrol postueta-tik finkatutako ordutegian pasatzen diren parte-hartzaileei diploma bana emanen zaie.

LASTERKETA

Urdazubiko konbrabandisten lasterketa maiatzaren 23an jokatu da

10 kilometro eta 300 metroko ibilbidea izanen du

ttipi-ttapa

Urdazubiko Salbato-re besten barne jokatu da aurten ere kontrabandisten lasterketa, maiatzaren 23an. Orain arte Udalak antolatu izan badu ere, aurten gazteak arduratu dira. 10 kilometro eta 300 me-

troko luzera eta 500 metroko desnibela duen ibilbidea egin beharko dute korrikalariak eta Etxeberriari hasita, Montxo, Elixondokoborda, Azkar, Mitxelkoborda eta Atzuan barna pasatu beharko dute, berriz Etxeberriari bueltatu aitzine-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurtengo lasterketa iragartzen duen kartelaren irudia.

tik. Tarte horretan, bi hornidura puntu izanen dira eta akaberan, luntxa izanen da. Aipatu, hasierako eta helmugako 300 metroak zakuarekin egin beharko direla, garai bakoitzeko kontrabandisten gi-

sara.

Izen-ematea egunean egin beharko da, 8:00etatik 9:30era bitartean eta 10 euro ordainduta. Lasterketa, berriz, 10:00etan hasiko da. Sariak gizonezko zein

emakumezkoetan berdinak izanen dira: Lehen gizonezko eta emakumeak 100 euro, kopa eta txapela eskuratuko dituzte; bigarrenak 50 euro eta kopa eta hirugarrenak 30 euro eta kopa.



Miel MINDEGIA *Aizkolaria*

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

• Aizkolaririk haundienetari-koa dela aspaldi erakutsi zuen Miel Mindegia (Ezkurra, 1949), baina oraindik ere sasoko dago, eta onenen artean.

• 60 urte bete berritan –apirilaren 23an egin zituen–, 60 ontzako 20 enbor ebakitzeko desafioa bota zuen joan den hilabetean, eta Donato Larretxeak onartu egin du. Azaroaren 8rako paratu dute hitzordua, Tolosako zezen plazan. Bakoitzak 12.000 euro paratuko ditu jokoan.

• Egunerokoan Zubietako baserrian segitzen du lanean, semearekin batera, 100 behi eta 300 ardi gobernatzen.

«Komeni nuke atsedean hartzea baina grina hemen dago oraindik»

ttipi-ttapa

Enbor gainean eta aizkora eskuetan, bertze kasta bateko gizon bat dela dirudi, nekatzen ez dena. 44 urte igaro dira Miel Mindegia bere lehenbiziko txapela irabazi zuenetik, eta oraindik ere, gerra ematen segitzen du, haundien artean. Txapelak ugari, eta trofeoak gehiago. Baserrian, pasilloaren alde banatara paratuak ditu guztiak, eta tartean daude Euskadiko 10 txapel eta Nafarroako 7, baita Munduko Txapelketako pare bat ere. Markak ere aunitz ditu: «*marka haundiak egin ditut eta oraingoz ez da inor hobetzen saiatu*».

Ttikia zela, familian eta herrian zegoen aizkorarako afizioari heldu zion Mindegia, eta Ramon Latasa zenaren gomendioei segituz, urruti ailegatu da. 16 urte betetzear zela, Leitza gazteen mailako lehen txapela irabazi zuen. 18 urterekin bigarren mailako txapelketa irabazi zuen eta apustuak egiten ere, orduan hasi zen: «*Anaia eta biok herriko beste bi aizkolariren aurka apustua jokatu genuen. Hura famatua izan zen*».

«37-38 urterekin 40 kanaerdiko ebaki nituen Mendizabal eta Arrospideren kontra. Bien artean 41 enbor moztu behar izan zituzten, eta halere, irabazi nien»

Eta historiara pasatuko den bertze desafioa azaroaren 8an Tolosan Larretxearen aurka jokatu duena izan da. 12.000 euro paratuko dituzte bakoitzak jokoan eta 60 ontzako 20na enbor ebaki beharko dituzte. Apustua «*nahiko estu*» ikusten duela aipatu digu. «*Kontrarioa aizkolari ona da, 10 urte gutxiago ditu eta sasoi betean dago. Ni ere aizkolari haundia izandakoa naiz, baina urteak ez zaizkit alferrik pasatu*». Halere, lan on bat egiteko gai ikusten du bere burua eta 60 urterekin hori egitea, bada kontent egoteko arrazoia. Egurrak, hori bai, Mindegia eramanen ditu. Hain zuzen, horregatik ez zuen lortu apustua jokatzeko akordiorik Unai Otañorekin, honek egurren erdiak be-

rak eramanen zituela erran baitzion Mindegia. Ezkurrako semeak, ordea, ezetz. Lesioek beldurra sortzen diotela ere aitortu digu: «*behin adin batera ailegatu ta, lesioak nonahi agertzen dira eta sendatzen denbora asko joaten da*».

Plazaz plaza, hainbat txoko ezagutu ditu Mindegia. Eta bat aukeratzeko eskatuta, azkar erantzun digu: Tolosako plaza. Bere garairik onenean, irabazi zuen apustu bat ere gogoan du: «*37-38 urterekin 40 kanaerdiko ebaki nituen Mendizabal eta Arrospideren kontra. Bien artean 41 enbor moztu behar izan zituzten, eta halere, irabazi nien*».

Aizkora eskuan ez duenean, baserrian egiten du lan Mielek. Gogotik, gainera, esnetarako 100 behi eta 300 ardi lan haundia ematen baitute. Semea –«*oso langilea*», aitaren hitzetan– eta biak ibiltzen dira.

Baserrian gustura, baina benetako pasioa eragiten diona aizkora da. «*Komeni nuke atsedean hartzea, baina grina hemen dago oraindik*». Ttikia zela «*afizioa*» zena, «*kapritxo*» bihurtua.

HARRI JASOTZEA

234 kiloko zilindroa esku bakarrarekin bizkarreratu du Inaxio Perurenak

Leitzarraren urteko bigarren marka da

ttipi-ttapa

Urteko bigarren marka ahalegina egin zuen apirilaren 25ean Inaxio Perurena Leitzako harri jasotzaileak jaioterrian, eta hutsik egin gabe bizkarreratu zuen 234 kiloko zilindroa esku bakarrarekin.

Bortz minutuko txanda bakar batean berdindu zuen 234koa sor-

balduan, jasoaldi ona eginez, gainera. Hiru potetan jaso zuen geritik bizkarrera, 22 segundotan. Berotzerakoan arazoren bat eduki zuen, baina proba puntuagarrian txukun ibili zen eta horrenbertez, marka pertsonal berria ezarri zuen.

Perurena II.ak aurtentzen lortu duen bigarren

marka izan da 234ko zilindroarekin egin duena. Izan ere, duela bi hilabete 295 kiloko errektangularra jaso zuen bi eskuekin Azpeitian (Gipuzkoa).

Esku bakarreko jardunari dagokionez, Perurena II.a bigarrena da sailkapenean Iñaki aitaren gibeletik. Aitak 267koarekin du marka



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Inaxio Perurena gustura dago marka berriarekin.

ezarria. Inaxiok, berriz, 230ekoa bizkarreratu zuen joan den urteko otsailean.

SOKATIRA

Larunbat honetan erabakiko da Goma Gaineko Lauko Sokatira Txapelketa

Eskualdeko 7 talde ari dira gizon, emakume eta kadeteen mailan

ttipi-ttapa

Bi jardunaldi jokatu ondotik, larunbat honetan, hilak 16, jokatuko da Nafarroako Goma Gaineko Lauko Sokatira Txapelketako azken saioa. Berriozarren izanen da Eguzki Plazan—euria eginez gero, pilotaleku berrian—, 17:00etan hasita.

Aurtentzen ere eskualdeko taldeek ez dute hutsik egin. Gizonezkoetan,

300 kiloen kategorian, Amaiur A eta B ari dira; emakumezkoetan, 265 eta 260koen mailan, Betti Gazte eta Amaiurrek talde bana dute eta kadeteetan, 295 kiloen mailan, Basaburuakotaldea dabil lehian.

Apirilaren 25ean abiatu zen txapelketa Zugarramurdi eta bigarren saioa Arbizun jokatu zen maiatzaren 2an. Txapel-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Beti Gazteko neskek oraingo hirugarrenak dira 265 kilokoan mailan eta bigarrenak 250 kilokoan kategorian.

keta bukatzeko jardunaldi baten faltan, soilik emakumezkoen 265 kilokoa dago erabakita txapela, Sakanaren alde.

Gizonezkoetan, Berriozar A da sailkapen orokorrean lehena 7 punturekin; Berriozar B bigarren, 6 punturekin; hirugarren Amaiur A, 5 punturekin eta laugarren Amaiur B, 2 punturekin.

Emakumezkoen 265 kilokoa, Sakana da lehenbizikoa, 8 punturekin; Amaiur bigarren, 5,5 punturekin; hirugarren Betti Gazte, 4,5 punturekin eta laugarren Berriozar 2 punturekin.

Emakumezkoen 250 kilokoan mailan, Amaiur da oraingo nagusi, 6 punturekin; bigarren Betti Gazte 4 punturekin eta

hirugarren Berriozar 2 punturekin.

Kadeteen mailan, azkenik, Basaburuakotaldean, 7 punturekin; bigarren Txantrea eta Andra Mari 5,5 punturekin biak eta laugarrena Putterri da, 2 punturekin.

Guztia larunbatean Berriozarren jokatu den azken saioan erabakiko da.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ERAKUSKETAK

URDZUBI

Urte osoan, gaur egungo pinturari buruzko erakusketak. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monastegiko Klaustroan.

HITZALDIAK

AZKAINA

Maiatzaren 30ean, Deabruaren putak gaiari buruzko hitzaldia Armelle le Bras Choparderekin. Gaztetxean, 21:00etan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Maiatzaren 30ean Des Kontrol taldearen kontzertua, 23:30ean Lur dantzalekuan.

ETXALAR

Maiatzaren 16an, Mafía eta Xarma taldeen kontzertua, Herriko Ostatuan 23:00etan.

GOIZUETA

Maiatzaren 23an, Mielobxin taldearen kontzertua, 20:00etan Ganbaran.

BERA

Maiatzaren 18an, institutuetako ikasleen topaketa. 17:00etan frontoian. Xehetasunak 16. orrialdean.

LEITZA

Maiatzaren 20an, institutuetako ikasleen topaketa. 17:00etan frontoian. Xehetasunak 16. orrialdean.

DONEZTEBE

Maiatzaren 27an, institutuetako ikasleen topaketa. 17:00etan frontoian. Xehetasunak 16. orrialdean.

LEKAROZ

Maiatzaren 29an, institutuetako ikasleen topaketa. 17:00etan frontoian. Xehetasunak 16. orrialdean.

GOMENDIOAK



Antzerkiarekin hitzordua Beran eta Lesakan

MUGAZ GAIN ETA KEINU LEIHOAK EGUNOTAN

Antzerkia gogoko dutenek zorioneko daude Bortzirietan egunotan. Lehenik, gaztetxoenen txanda izanen da. Maiatzaren 7 eta 8an hasi ziren Mugaz Gain jardunaldien bigarren zatia izanen baita Berako Kultur Etxean, maiatzaren 21 eta 22an. Oraingoan, Bortzirietako Lehen Hezkuntzako ikasleak ariko dira. Maiatzaren 21 goizean, Labiagara 5. mailako ikasleek *Afrikara goaz!*, Igantziko eskolako 3. eta 4. mailako ikasleek *Ikas dezagun ba...* eta Ricardo Barojako 5. mailako ikasleek *Aditutakoak* antzeztuko dute. Maiatzaren 22an, Jesusen Bihotza ikastetxeko 2. mailako ikasle-

ek *Otso bihozbera*; Hazparneko ikasleek *Zapatak mintzo* eta Ricardo Baroja eskolako 2. mailako ikasleek *Xaulen bidaia* antzeztuko dute. Goizez ikasleei zuzendutako emanaldiak izanen dira eta arratsaldeaz ateak nahi duten guzientzat zabalik izanen dira. **Lesakan**, bertze urte batez, Keinu Leihoak jardunaldiak eginen dira, Mairu Antzerki Tailerrak antolatuta. Maiatzaren 23an, goiko argazkian ageri den *Errege, soldadoa eta bufoia* antzezlan eskainiko dute udaletxeko arkupeetan 20:00etan eta maiatzaren 30eko ilunabarrean *Txanobarragorrokomentuan*.

DISKAK



The Pub Ibiltaria

OSKORRI

ELKAR, 2009

The pub ibiltaria izenarekin euskal abesti tradizionalen bilduma azken diskoa grabatu du Oskorrik. Beraz, Euskal Herriko kantuen ondarea ezagutzera eman eta berpopulizatzeko asmoz Oskorri talde beteranoak dakarkigun sailaren 13. alea da bilduma sendo eta historiko honi urrezko bukaera ematen diena. Oskorri taldeko partaideak Bilboko Arenal plazan, Santo Tomas azokan publikoarekin elkartu ziren denen artean abesteko eta horren emaitza disko bikoitza argitaratzea izan da. Disko batean, zuzenean publikoarekin eginko abestiak ageri dira eta bertzean abesti horien *play-back* bakarrik, partituren liburuxka bat ere bada diskokoak. Ibilian-ibilian, 226 abestiko kantutegia osatu dute Oskorrikoek *The Pub Ibiltaria* bilduma honekin

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (apirilaren 26tik maiatzaren 1era bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 46,00 € (=)

Zerri gizena
1,127€ kilo. (=)

Zerramak:
0,460€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,10 (=)

1.koa 3,80 (=)
2.koa 3,10 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,20 (=)
1.koa 3,90 (=)
2.koa 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,98/3,08
Zaldi-behorrak: 1,67/1,87
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,10/5,90
8-10 kilokoak: 4,20/4,50

JAKIN BEHARREKOAK

Bankuko datuak lortzeko korreo elektronikoak ugaritzen ari dira

Informazio pertsonala *e-mail* bidez ez emateko aholkatu du Iratxek

Phishinga ugari-zen ari da eta horrekin tentu haundiz ibiltzeko eskatu du Iratxi Nafarroako Kontsumitzaileek Elkartek. Erabiltzaileen bankuko datuak lortzeko erabiltzen duten sistema da phishing delakoa, gero iruzurra egiteko. Iratxek jakinarazi duenez, dagoeneko hainbat dira hori salatu duten bezeroak. Antza, Santander Bankua, Popular Bankua edo Banesto bezalako enpresa ezagunen izena erabiliz saiatu dira iruzurgileak datuak lortzen.

Izan banketxe horietako bezeroa ala ez, kontsumitzaileek aipatu banketxeen izenean mezuak jasotuzte, «*segurtasuna bermatu eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren lan ba-*



Datu pertsonalak, kontu zenbakia eta kodeak eskatzen dituzte iruzurgileak.

tzuk» egin behar ditzutela erranez, eta datuak baieztatzeko eskatuz. Galdetegi bat betearazten diote bezeroari, eta datu pertsonalak, kontu zenbakia eta bertzelako kodeak eskatzen dizkiote. Kontsumitzaileak horien berri ematen badie, iruzurgileak erabiltzailearen kontu zenbakira joateko nahiko datu dituzte eskura eta edozein eroske-

ta edo bertze zerbitzu egin ditzake.

Iruzurra egiteko ohiko bidea Internet bidez mezuak bidaltzea bada ere, zenbaitetan telefono bidez edo sakelekora mezuak bidaliz ere saiatu dira.

GERO ETA IRUZUR KASU GEHIAGO

Iratxeren arabera, phishing kasuak ugari egin dira eta neurri hauek proposatu

dituzte kaltetua ez izateko:

-Banketxeek ez dute sekula korreo elektroniko bidez datuak baieztatzeko eskatzen. Beraz, hori nahi duten mezuei ez erantzun. Gainera, datuak behin eta berri eskatzea ere kontuan izan beharrekoa da.

-Datuak eskatu dizkiguten atariaren helbidearekin ere adibili behar da: «*https://*» eduki behar du hasieran, eta ez «*http://*» bakarrik.

-Banketxe baten web orrira sartu behar bada, helbide guztiak teklatu behar da, eta ez sartu bertzelako loturetatik.

-Kode pertsonalak sekretuan mantentzea komeni da eta Internetez egindako eragiketa guztiak idatiz gordetzen badira, hobe.

LIBURUAK



Aulki-jokoa

Uxue ALBERDI

ELKAR, 2009

Adineko hiru emakumerekin bildu eta haiei entzundakoe-kin idatzi du Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984) bere lehenbiziko eleberrria: *Aulki-jokoa*. Arratsaldero, fikziozko kafetegian elkartzen diren gaur egungo adineko hiru emakume dira eleberriko protagonistak: Teresa, Martiña eta Eulali. Hirurek ume zirenetik gaur arte izan duten garapena kontatzen da liburuan. Batzuetan ume garaiko oroitzapenak kontatzen dituzte, bertze batzuetan 25

urte zituztenekoak; eta oraingo kontuak ere aipatzen dituzte, kafetegi batean kafea hartzen ari diren bitartean. Mai-tasuna, 36ko gerra zibila, askatasuna, errebeldia... dira liburuan ageri diren gaietako batzuk. Narratzaile bakoitzak, gainera, arlo desberdinari hel-tzen dio. Teresak gai sozialei; Martinak giza harremanen ar-zoei; eta Eulalik, berriz, barne gogoetei. Baina idazlearen ar-bera, «*hirurentzat da garrantzi-sua duintasuna*».

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Maiatzaren 17an Belatera ateraldia.
Maiatzaren 24an, Hirubela-kaskora irteera.
Maiatzaren 31n, Mendi Itzulia. Xehetasunak 43.or.

ANTZERKIAK

BERA

Maiatzaren 20 eta 22an Mugaz gain antzerki jaialdia. Xehetasunak 10. orrialdean.

LESAKA

Maiatzaren 23an eta 30ean Kenu Leihoa jardunaldiak. Xehetasunak 11. orrialdean.

IKASTAROAK

LEITZA

Maiatzaren 19an eta 21ean marketin eta kudeaketa tailerra (14:00-17:00).

DONEZTEBE

Maiatzaren 26an eta 28an marketin eta kudeaketa tailerra (14:00-17:00).

ELIZONDO

Maiatzaren 25ean eta 27an marketin eta kudeaketa tailerra (14:00-17:00).

OSPAKIZUNAK

LEITZA

Maiatzaren 18tik 31ra Aste Kulturala. Xehetasunak 34. orrialdean.

ARESO

Maiatzaren 16an Leitzaldeko eskolen topaketa.

IRURITA

Maiatzaren 16an Francoren garaiko presoei omenaldia. Xehetasunak 37. orrialdean.

DONEZTEBE

Maiatzaren 30ean Errekaren Eguna. Xehetasunak 18. or.

00-34 948 63 54 58

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

ARANTZA. Bi familiako etxe batean etxebizitza salgai. ☎630 388154.

IRUN. Herrigunean pisua salgai, 2. solairuan. Sukaldea eta bainugela trensa guztiekin-, 2 logela eta egongela. Berogailua eta igogailua. ☎637 559152.

ITUREN. Etxe adosatua salgai edo errentan emateko. 2000. urtekoa. Moleztatua eta polita. ☎679 210910.

BERA. Eztegarra pasealekuan pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. Kanpora begira eta berogailuarekin. Prezioa: 181.000 euro. ☎600 501881.

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

BARAÑAIN. 2 logelako apartamentua errentan emateko. Garajea eta trastelekuarekin. ☎606 192829.

ETXALAR. Pisua errentan emateko, moleztatua. ☎943 638131.

ETXEBIZITZAK

105 Konpartitzeko

BERA. Etxe konpartitzeko lagun bat behar da. ☎688 601343.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESACA. Antoiu 23, beheko solairuan, 48 m²ko bulegoa salgai edo errentan emateko. ☎679 432522.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

BERA. Martxandagoen ile-apaindegi bat errentan emateko. ☎675 716121.

LURRAK/ORUBEAK

112 Salgai

SARA. Ura, argia eta isurbidea dituen 800 eta 1.000 m² arteko lur eraikigarria salgai. ☎0033 559542540.

ZERBITZUAK

205 Zurginak

ARANTZA
Zurgindegiak
- Klase guztetako zurgin lanak
- Eskatu surrakentzako konpromisoak gabe
- Iruñeako Errenterriko
Tel: 948 634 948 - 447 810 144
Carrizosa - BERRITZA

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

Fistula arazoak? Kirurgiarik gabe. Naturala. 15 egunetan moldatua. ☎618 628311.

IRUÑA-BURLATA. Ikasle gazteentzat: zure bokazioaren eta gaitasunen arbera, zuretzat lanbide egokiena zein den jakin nahi baduzu, numerologiaren zientzia zure eskura duzu. Zientzai honek zenbakien bidez -jaiotze-datan eta izen-abizenetan oinarri-

tuz-, gizabanakoaren izaera, nortasuna eta intzidentzia guztiak ezagutarazten ditu. Azterketa bat egitea nahi duenak deitu. Prezioa: 20 euro. ☎647 156370.

LANA

302 Eskaintzak

SARAn sukaldaria eta zerbitzaria behar dira lanean aritzeko. Sukaldaria emakume euskalduna eta esperientziaduna bada hobea. ☎686 561525/0033 559542131.

BERTIZ. Turismo Bulegoan lan egiteko pertsona bat behar da, ekainean hasteko. Eskatzen da: turismo alorrean formakuntza (horrela ez bada, esperientzia), euskara, frantsesa edota ingelesa jakitea. Interesatuak: ostaitz@yahoo.es.

MOTORRAK

501 Salgai

Volkswagen Transporter furgoneta salgai. 105 zaldikoa eta 115.000 kilometro. 2004ko urrikoa. 9 plaza. Prezioa: 15.000 euro. ☎948 452372.



MOTORRAK 502 Tailerrak

GANIX
TAILERRA
Iturriaren mekanika eta elektrizitate
BERA FIAT zerbitzua
Iturriaren, 9 | Tel: 948 630 447

ANIMALIAK

601 Emateko


Arratoi zakurkumea opartzeko. ☎606 883399.

ANIMALIAK

602 Salerosketak

2 **ahari** salgai, latxak eta mutur gorriak. ☎948 504498.

3 urteko **zaldia** salgai. ☎628 538652.



Astoak salgai. 2, 3 eta 4 urtekoak. Beltzak eta onak. ☎948 630004.

Txakurkumea nahi dut, tamaina ttipikoa eta ile motzekoa. ☎943 618255/657776922.

Gaztain koloreko **zaldi** ederra eta mendian ongi egoten dena salgai. ☎609 441298/690 830292.



DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

BERA. Toki Ona Institutuari inguruan 5 giltza aurkitu dira. ☎948 625000 (goizez).

BERA. Legia karrigan samsung markako sakeleko baten bateria agertu da. ☎948 630629 (deitu gaez).

DENETARIK 702 Salerosketak

Same Minitauro markako **traktorea**, 60 zaldikoa, eta esnea hozteko **tankea** sal-

urtebetetzeak

www.ttipi.net



NEREA AGESTA MARTIKORENA doneztebarrak maiatzaren 14an 2 urte beteko ditu. Zorionak gu-re printzesari. Muxu haundi bat familiaren eta bereziki Oierren partetik.



ALOÑA ETXARTE TELLETXEA. Zorionak etxeko printzesari maiatzaren 13an 7 urte bete dituelako. Muxu haundi bat etxekoekin partetik.



Zorionak **ALOÑA**, ongi pasa zure eguna eta merendolara gonbidatu! Muxuak Iraia eta Unaxen partetik.



HAIZEA TXOIPENA CONDE. Segi orain bezain goxoa eta alaia izaten. Ondo pasa eguna eta muxu haundi haundia etxekoekin eta Xinko-tarren partetik.



IMANOL BIURRARENA ORTIZ leitzarrek 4 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik. Egun on bat pasatuko duzula espero dugu. Zorionak politte!



Zorionak **MIGUEL** eta **JON ANDERRI** maiatzaren 19an eta ekainaren 5ean urteak beteko dituztelako. Zorionak Peio, Gemma, Josu eta Aneren partetik. Muxus.



Etxalarko **MIKEL ITURRIA MARTINEZ** ek 4 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Ea aruten ere joan den urteko ondoak biltzen dituzun. Muxu haundi bat atta, ama eta Olaia-ren partetik. Zorionak moñoño!



Zubietako **LOREA SANTESTEBAN GOIZUETAK** 5 urte beteko ditu maiatzaren 15ean. Auniz urtez familia eta bereziki Mikelen partetik.



Sunbillako **BEÑATEK** urtea beteko du maiatzaren 17an. Zorionak zure lagunena eta zure amatoren lagunena partetik. Berendu goxoa prestatu!



JONE ETXEPARE. Auniz urtez gu-re txapeldunari. Maiatzaren 17an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta ongi pasa eguna familia guztiaren partetik.



Etxalarko **NIKO GARCIA ARANZADIK** maiatzaren 20an 5 urte beteko ditu. Zorionak maite zaitugun guztien partetik, bereziki Mugerdi-ko animaliak, Juampa, ama eta Daniela.



ARANTXA SESÉ AGARA beratarrek 11 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Auniz urtez potto-ka! Segi kanastak bixitasun horrekin sar-tzen!




PAULA eta **PILI EXTREMERA** leitzarrek martxoaren 21ean eta apirilaren 22an urteak bete dituzte. Zorionak ahizparen partetik.



SOFIA JIMENEZ ZAPIAINEK urtea beteko du maiatzaren 21ean. Muxu asko eta zorionak aita, ama, anaia Mikel eta familiaren partetik.



ADRIAN GALINDO MELENDEZ eta **INES MELENDEZ** ama-seeek urteak bete dituzte maiatzaren 2an eta 6an. Zorionak amona eta amaren partetik.



Maiatzaren 3an 7 urte bete ditu **EÑAUTEK**. Auniz urtez denen partetik.

gai, 420 litrokoa. Japy markakoa. ☎660 251884.
Bi **ohatze** oso salgai (somierra, koltxoia eta burukoia). ☎948 599267.
Bigarren eskuko rapid **segadora** erosiko nuke. ☎948 631212/ 649416302.
Rapid **segadora** eta Agria markako **motoaitzurra** salgai. ☎948 450060.

Galfre markako **belarrari buelta ematekoa** 400 eurotan eta Kuhn markako **belarra biltzekoa** salgai (2 metro), 900 eurotan. ☎948 450060.
Agrator markako **rotabaldorea** salgai, 1.500 eurotan. bi lerroko artoa eritekoia salgai. ☎948 450060.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK zure laguntza behar du
Proiektu zenbakia: **15.996**
Eginzazu TTIPI-TTAParen alde

Zure laguntza eskertzeko, motxila edo hau izanen duzu apart!

Eskia ezazu TTIPI-TTAParen proiektuak aukeratu izanaren frogagria Nafarroako Kuzkaren zura bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

gure bezeroak aukeratuak dira proiektuak **can**



LUIS GALINDO leitzarrek urteak bete ditu otsailaren 3an. Zorionak amaren partetik.

SANTESTEBAN Tailerrak

Sania 1.200km³ 13.900 €
Español Español 1.200 1100cc 7 plako 2007/04 + 12.900 €
Kangoo Grand 1.6 130 2007/04 + 17.900 €

ETA GANERA

- Opel astra GTC 1.8 16 120cv 2007/04 - 17.900 €
- Peugeot 307 1.7 110cv 2007/04 - 20.900 €
- Wagone 8 Compression 1.5 DCI 110cv 2007/04
- Pord Passat 1.8 TDI 2007/04
- Kangoo Express 1.6 110cv 2007/04
- Clio 9 110cv 1.5 DCI 75cv 2007/04 - 10.900 €

DONEZTEBEN RENAULT eta CITROEN BERRITAN SEKULAKO EKIZANZAK

BORDA PLADUR LANAK

ENKARGEMENDE BEHARREAN
DIRENENTZEN GARA BIKULARRA
T/F: 948 437 348 • M: 609 477 277
ZELARIA: Piedad
bordaplada@telefonos.net

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI (gasolina eta diesel)
MITSUBISHI (luze eta laburrak)
TURISMOAK

BERAKOUDALA
ASUNTAMENDU DE BERA

LUR EZ URBANIZAGARRIAN UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILA BEHIN BEHINEKOZ ONETSI BAINO LEHEN JENDAURREAN BERRIRO JARTZEA

Berako Udalak, 2009ko martxoaren 24ko bilkuran, Lur ez Urbanizagarrian Udala Plan Orokorren aldaketa, antolamendu egiturazailerako determinazioa, behin-behinekoz onestu baino lehen berriro jendaurrean jartzea onetsi zuen.

Espedientea jendaurrean izanen da hilabete batez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ematen denetik kontatzen hasita.

Bera, 2009.04.21 ALKATEA Josu Iratzoki Agirre

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



UNAX ZABALETA GARTZIA leiztarrak maiatzaren 24an urtea beteko du. Zorionak eta tira-tira fuerte belarriari! Muxu haundi haundi bat aitaxo eta amatxoren partetik.



Aurtizko **ITXASO** eta **IRATI MINDEGIAK** maiatzaren 24an 12 urte beteko dituzte. Zorionak zuen lagunen partetik. Berendu goxoxoa prestatu!



UNAX ZABALETA leiztarrak maiatzaren 24an lehenengo urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat Aurtiztik eta berexiki Ekiñeren partetik.



MIGUEL UBIRIA ALZATE lesakarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Muxu haundi bat ama, atta eta familiaren partetik.



Goizuetako **PATXI** eta **JON** osabulobek urteak bete dituzte maiatzaren 6an eta 7an. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.



AIMAR eta **ANE TELLETXEA IRAOLA** igantziarrek 9 eta 3 urte beteko dituzte maiatzaren 15ean eta 4an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta Markelen partetik.



LOREA SANTESEBAN eta **AIMAR ARRETXEAK** aurtiztarrek maiatzaren 15ean eta 19an 5 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana. Segi orain bezain guapoak!




AIMAR ARRETXEAK MIKEO aurtiztarrek maiatzaren 19an 5 urte beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez familia guztiaren partetik.



JOSEBA PETRI-RENA beratarrek 26 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak Liverpooleko fitxaje berriari, aitaren partetik.



YONI SALABERRIA ZABALA goizuetarrak 12 urte bete ditu apirilaren 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Begi-uridin polita: zorionak Goizuetako **JON URDANPI-LETA ZABALARI** 4 urte bete dituelako maiatzaren 7an. Amona Pili.



JAIONE BERGARA arantzarrak 25 urte beteko ditu maiatzaren 14an. Aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat gure dendari finari!



OLAIA ALTZURI MAKUSO aurtiztarrek maiatzaren 2an 10 urte bete ditu. Muxu handi bat familiaren eta berexiki Mikel, Iosu eta Ainararen partetik. Berendu goxoa prestatu!



Hirukote honek apirillean bete dituzte urteak. **DIHAN SARRATEAK** 3 urte apirilaren 4an, eta atautxi **FERMIN ETXEKOLONEAK** eta **AIMAR SARRATEAK** 79 eta 7 urte apirilaren 27an. Zorionak familiaren partetik.




BIHOTZ ALUSTIZA IPARRAGIRRE arantzarrak 3 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak familia osoaren partetik eta berexiki Uxueren partetik, muxutxu haundi bat.



IOSU ALTZURI MAKUSO aurtiztarrek maiatzaren 11n eta bere lehengusina **KRISTINAK** maiatzaren 18an urteak beteko dituzte. Muxu handi-handi bat familia guztiaren partetik eta berexiki Olaia, Mikel eta Ainararen partetik.



Zorionak **JOSEBA!** Aunitz urtez Markel eta Zuriñeren partetik. Aunitz maite zaitugu. Muxu bat!



JOSEBA ITURBIDEK maiatzaren 8an urteak bete ditu. Aunitz urtez guraso, anaia, osabizeba eta lehengusua guztiaren partetik. Maite zaitugu!



XABIER SANZBERRO TELLETXEA etxalartarrak maiatzaren 14an 12 urte beteko ditu. Zorionak Eneko eta etxekoan partetik.



IZARO TORRES beratarrek 7 urte bete ditu maiatzaren 9an. Zorionak atta, ama eta amatxiren partetik.



Berako **IORITZ GOIENETXE MARITXALARREK** 4 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Zorionak Oier anaia eta etxekoan partetik. Pila-pila txoko marrubizko muxuak zuretzako maitea.



IORITZ GOIENETXE MARITXALARREK beratarrek 4 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Zorionak ataxi-amatxiren partetik. Ongi pasa eguna!



MIGUELEK 4 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat osabizeba eta Garaziren partetik.



MAIDER eta **AXULAR** beratarrek 6 urte eta urtea bete dituzte maiatzaren 4an eta 9an. Zorionak bikote familia guztiaren partetik.



MARIA MARTIN BAIONA etxalartarrak maiatzaren 10ean 7 urte bete ditu. Zorionak gure printzesari Etxalar eta Lesakako familien eta berexiki anaia Asierren partetik.



IRATI MINDEGIA aurtiztarrek maiatzaren 24an 12 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik. Zaindu ongi bildotsak!




ITXASO MINDEGIA aurtiztarrek maiatzaren 24an 12 urte beteko ditu. Muxu haundi bat etxekoan partetik eta berendu goxo-goxoa prestatu denontzat.



IMANOLEK 4 urte beteko ditu maiatzaren 18an. Zorionak dantzari! Muxu pila familia guztiaren partetik eta ongi pasa eguna!



EKINE SALGADO SOLO lesakarrak maiatzaren 14an 3 urte beteko ditu. Zorionak printzesa atta, ama eta Juneren partetik.



Iturengo **MARION** eta **IXIARREK** maiatzaren 15ean eta 16an 5 eta 16 urte beteko dituzte. Zorionak bikote familia guztiaren partetik. Ongi pasa eguna!!



Sunbillako **BEÑAT ESPELOSINEK** maiatzaren 17an urtea beteko du. Zorionak Berako eta Sunbillako familia, guraso, Ander eta berexiki izeba pitufaren partetik. Prestatu berendua *Kottino*.

deskontuak

DENDA HAUTETAN EROSTEAGATIK

Deñe

DEÑE Lentzeria • Mertzeria • LESAKA
%10eko deskontua lentzerian



MENDIAUR Pentsuak DONEZTEBE
% 5eko deskontua (pakiarena, katuena...)

JAIONE

JAIONE Tindategia • DONEZTEBE
%10eko deskontua, 12etik gorako gastuan

ZALAIN MOTOR

ZALAIN MOTOR Tailerra • BERA
%5eko deskontua errekanbioretan

KATTALINGORRI

KATTALINGORRI • ELIZONDO
%10eko deskontua

SARIDUNAK:

- 1 3 liburu (Ibaizabal):
M^a Jose Zaldúa (Elibete)
- 2 2 liburu (Elkar):
Maite Etxenike (Iruñita)
- 2 jantzi (Txapela Buruan):
Gurutze Pikabea (Arantzal)
- 3 M^a Eugenia Sagardoi (Etxalar)
- Zirri Borro CD-Rom jolasa
(Ikastolen elkarteak):
Geno Otxoteko (Arantzal)
- 4 2 kamiseta (Oninart):
Blanca Perez (Etxalar)
- 5 SMSa
2 sarrera (Camelot Park):
Oier Ibañez (Iruñita)

Liburua
(Mendukiloko leizeak):
Ana Launagarai
(Elizondo)

5 sarrera
(Mendukiloko leizeak):
Karmele Pikabea
Eduarne Urroz (Sunbilla)
Miren Goñi (Dronoz-Mugain)
Sonia Salgado (Lesaka)
Eduardo Ibañez (Elizondo)

Animatu
www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu.



ttipi txartelarekin beti irabazten da!

11 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
asteleheneretik ostiralera
09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58



4 **ARGIA**
aldizkariaren
HARPIDETZA
3 hilabetekoa
Lote 1
Argia
www.argia.com



2 **MARTIKO**
PRODUKTUAK
Lote 1
Martiko
www.martiko.com



3 **JANTZIAK**
Txapela Buruan
2 Lote
txapela buruan
www.txapela-buruan.com



4 **Pirritx, Porrotx eta Mari Motos**
Eskerrik asko DVDa
Herriko postariak
liburua
Piratak posterra
3 pin
Lote 1
pirritx eta porrotx
www.pirritxetaorrotx.com



5 **KAMISETA**
2 Lote
andito
www.anditopunto.com



6 **KAMISETA**
2 Lote
andito
www.anditopunto.com

ttipi saskia TTIPI SASKIAREN ZOZKETAN JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA 5767 ra



AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquarium.com



Artico
Palacio de hielo
Ibarr 5
Telefonoa 948 23 88 55
Uhartze Nafarroa

Zozketan parte hartzeko epaia: inaztaren 11tik inaztaren 2tera, inaztaren lehen inaztaren 2tik inaztaren azken inaztaren 2tik. Inaztaren azken inaztaren 2tik inaztaren azken inaztaren 2tik. Zuzenketa edo (beharrean) 241 egiteko deia 948 63 54 58.

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



PVC eta aluminio aroztegia

Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak

Ordoki industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK